

Jose Otxoa de Arin

**DOKTRINA
KRISTIANAREN
EXPLIKAZIOA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Josu Landa Ijurko.

Iturria: *Doctrina Christianaren Explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itz eguitendan moduan*, Joseph Ochoa de Arin. Donostian, Pedro de Ugarteren etxean, 1713.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

DOKTRINA KRISTIANAREN EXPLIKAZIOA

BILLA FRANKA GIPUZKOAKO
onetan euskaraz itz egiten dan moduan

Erri Noble onen instanziatz eskribitu
zeban beraren Bikario, eta Kapellau
D. JOSEF OTXOA de ARINEK,
Pueblo onetako Aurrai irakasteko.

DEDIKATZEN DIO
Erri ilustre oni Kartilla au.
ETA

Billa Frankako Erriak konsagratzen dio bere
Patrona soberana
MARIA Santisima Asunpziokoari.

Urte 1713

DONOSTIAN:
PEDRO de UGARTEren Etxean

LICENCIA DEL SR. CORREGIDOR

Don Alvaro de Villegas, del Consejo de su Mag., su Oydor en la Real Chancilleria de Valladolid, Corregidor de esta M.N. y M.L. Provincia de Guypuzcoa, y Juez Subdelegado, con acuerdo del Real, y Supremo Consejo de Castilla, y por el Ilustrissimo Señor Conde de la Estrella, del Consejo, y Camara de su Mag. por lo tocante â las impresiones que se hizieren en esta dicha Provincia de Guypuzcoa: Por el presente doy Licencia a Don Joseph Ochoa de Arin, Vicario de la Parrochial de la Villa de Villa-Franca, para que pueda sacar â luz un libro en lengua bascongada, de la explicación de la *Doctrina Christiana*, y para que cualquiera Impressor de esta Provincia pueda Imprimir dicho Libro, sin incurrir en pena alguna; atento ha constado de la Licencia que tiene el dicho D. Joseph Ochoa de Arin, del Ordinario Ecclesiastico de Pamplona, para este efecto. Dada en Azcoytia, â 28. de Mayo, del año de 1710.

Don Alvaro de Villegas
Por su mandato,
Antonio de Zorroviaga

APROBACION

**DEL R.P.M.F. DOMINGO DE YBIRICU,
Examinador Synodal del Obispado
de Pamplona,
y Comendador de su Real Convento
de N. Sra. de la Merced,
de la misma Ciudad**

Por comission, y orden del Muy Ilustre Señor Doctor Don Francisco Ignacio de Aranzeaga, Provisor, Vicario General, y Governador de este Obispado de Pamplona; he visto, y leído con atencion, y cuydado un libro en lengua Bascongada, que es Declaracion de la *Doctrina Christiana*, compuesto por D. Joseph Ochoa de Arin, con fin de que los Niños la aprendan en èl, como en Cartilla, con el zelo de Cura de almas, que lo es en la Villa de Villa-Franca de la Provincia de Guipuzcoa: y no he hallado en èl cosa que repugne à la Santa Madre Iglesia, y buenas costumbres; antes bien, me parece clarissima la *Explicacion de la Doctrina Christiana*, y misterios de Fè, aun en la mas alta Theologia, y creo ha de ser libro utilissimo para la educacion de los Niños, y des-

canso de los Curas de Almas. Por lo qual, juzgo se le debe dar la licencia que pide para la estampa, salvo, &c. En el real Convento de N. Señora de la Merced, Redempcion de Cautivos de la Ciudad de Pamplona à 17. de Henero, de el año de 1710.

F. Domingo de Ybiricu, Comendador.

LICENCIA DEL ORDINARIO

Nos el Doctor D. Francisco Ignacio de Aranzaga, Provissor, y Vicario General de este Obispado de Pamplona, por el Ilustrissimo Señor D. Juan Iñiguez de Arnedo, Obispo del dicho Obispado, del Consejo de su Magestad, &c. Por la presente, y por lo que à nos toca, damos, y concedemos licencia á D. Joseph Ochoa de Arin, Vicario de la Parrochial de la Villa de Villa-Franca de la Provincia de Guipuzcoa, para que sin incurrir en pena, ni censura alguna pueda sacar à luz, y dar á la Imprenta un libro que ha compuesto en idioma Bascongado, de la explicacion de la *Doctrina Christiana*, y otras Oraciones muy impor-

tantes; atento que ha sido visto, y examinado por el R.P.M.F. Domingo de Ybiricu, Examinador Synodal de este Obispado, Comendador del Convento de Nuestra Señora de la Merced de esta Ciudad, y que no contiene cosa contra nuestra Santa Fè, y buenas costumbres. Dada en Pamplona à 18. de Enero, de 1710.

Doctor D. Francisco Ignacio de Aranzeaga

Por mandado de su merced,
Juan Fermin de Villanueva.

PROLOGO AL LECTOR

Bien pudo mi insuficiencia excusar el escribir esta Cartilla, y Catecismo de Niños, mayormente quando se me pide por esta Noble Villa de Villa-Franca, para dar a la prensa; porque en admitir esta honra, exponia mas a lo publico mi ignorancia duplicada: ignorancia en la sabiduria, que por mi propio character, y oficio debiera tener; y ignorancia tambien en el perfecto conocimiento de mi propio no saber. Mas, ni este riesgo, tan manifiesto contra mi, pudo disculparme prudente en la resistencia; pues hallandome (indignamente) constituído en la obligacion del Oficio de Pastor de Almas de este tan Christiano, y Catholico Pueblo, se me pidió lo que en todo Derecho, y Justicia debo à mis Obejas. Todos los derechos oygo, claman contra los Pastores negligentes en alimentar su Grey; gritan â una voz todas las Leyes, las Divinas, las Naturales, las Humanas, segun constante sentir de todos los Padres, y Doctores de la Iglesia. Siendo, pues, esto assi: como podria negarme, sin incurrir en conocida

temeridad, à peticion tan justa? Demàs, que el pan de *Doctrina Christiana*, que se me pide, es, para que los Niños de el Pueblo desde su tierna hedad entren con felicidad à gustar de este espi-ritual sustento tan precioso, como util, y neces-a-rio para el logro de su buena educacion y ense-ñanza, y à este fin es fuerza les dé yo este pan del Cielo, pero no entero, fino (conforme se me pide, y ellos lo necesitan) bien partido, para que les sea mas sabroso, y menos difìcil el digerirlo, y les sirva de alimento tan util, como necessario para el logro de la Bienaventuranza, á donde como por la mano me toca conducirlos; pues de otra suerte, qué les aprovecharà el proponerles yo la obligacion de el Christiano en general, si quanto deben creer, orar, recibir, y obrar no les explicara, como debo, con toda distincion, y cla-ridad? Seria, es verdad, dar el pan de la vida, que misericordioso, y liversal nos lloviò del Cielo; mas seria darsele entero: de que se siguiera, que como parbulitos (no tanto de hedad, mas de entendimiento) no teniendo dientes para maz-carlo, mal podrian digerirlo de modo que les entrase en bastante provecho y seria sacar à los

ojos las lagrima à quien se lamenta de que los Niños pequeños el dia de oy en la Iglesia, si tienen pan, no tienen quien se le desmenuze: *Parvuli petierunt panem & non erat que frangeret eis* (Thren. c.4.v.4.) Es, pues, cierto, que pidiendose-me à este fin, escribiesse la Declaracion, ò Explicacion de la *Doctrina Christiana* en el Basquenze nativo de esta Patria, para instruir á los Niños de ella, no me escusaba sin incurrir en temeridad conocida, de admitir tanta honra como me dispensa en repetidas instancia esta Noble Villa de Villa-Franca, y aplicarme sin la menor resistencia al corto trabajo de la obra, por mas que temiera justamente, que en ella exponia mas à lo publico mi duplicada ignorancia; pues quando no le acierte à escribir con la perfeccion debida, à lo menos manifiesto con sinceridad Christiana el deseo de el acierto en el cumplimiento de mi obligacion, que de algun modo me podrá servir de disculpa.

Nada contiene esta Cartilla, que ya no esté mucho mejor explicado en otros Catecismos. Mas para mi mayor seguridad, y huír de qualquiera error, en que me pudiera hazer tropozar

mi ignorancia, he procurado con el cuydado, y vigilancia possible leer, antes de poner manos a la obra, lo que dizen las Divinas Escripturas, y lo que segun ellas nos enseñan los Sagrados Concilios, Santos Padres, y otros muchos Doctores, assi Expositores, como Theologos en lo Escolastico, y Moral, a cerca de los Misterios de nuestra Santa Fe, Virtudes que debemos seguir, y vicios que debemos huìr: cuyas citas, y muchas de las Autoridades expresas, sacadas de sus propias fuentes, he querido poner en esta Cartilla, solo â fin de que los doctos, que gustaren leerla, me adviertan por caridad, si conforme á ellas no estuviere arreglada, y escrita, para que me enmiende quantos excesos reconocieren he cometido, por faltarme su debida inteligencia; que para el efecto, desde luego me sujeto a su censura, y â la correccion de la Santa Madre Iglesia Catholica, Apostolica, Romana.

PUEBLO ONETAKO JENTEARI ETA FAMILIAKO GURASO GUZIAI EGITEN ZATE ADBERTENZIA

Kartilla onetan arkitzen dan Doktrina, da gutxienaz persona bakoitzak bere animaren salbaziorako jakin bear debana, eta irakatsi bear zatena aurrai, oek uso razoezkora datozen tenporan iduki dezaten ezaguturik, eta jakinik zenbat estimatu bear dan birtutea, eta nola segitu bear zaion birtuteko bideari, Zerura juateko, eta zenbat iguin, edo aborrezimentu artu bear zaion pekatuari, eta zein kuidadu andiarekin bear dan igas egin pekatuaren bide, ta okasio guzitik, ez erorteko infernura.

Onez ostein, emen entzutera ematen dan gauza da, ezen, asko inportaduko baleu ere memoriaz ikastea Kartilla onetan euskaraz eskribiturik dijean guztia (Konfesio Jenerala, edo partikulara egiteko instruzio, edo regla aez kanpora, eta Konzienziaren examinez kanpora, zeñak arkitzen diraden Kartilla onen bostgarren, eta Seigarren kapituluetan) bastante, edo asko dan

adinbat izango dala jakitea Doktrina Kristiana alako moduan, nola galdetzen zaionean Kristaulari, ezagun zaion erantzuten debana sufiziente dana, edo asko dan adina bere esplikatzeke moduan, eta orrez gañera jakitea memoriaz, Kredo (edo Fede Santuko amalau Artikuluak) Jaungoikoaren Legeko hamar Mandamentuak, Paternosterra, zazpi Sakramentuak, eta pregunta aek zeñak dijeazen eginikan Trinitade Santuko, eta Enkarnazioko Misterioaren explikazioan.

DOKTRINA KRISTIANAREN TEXTOA

PATER-NOSTERRA

Aita geurea, Zeruetan zaudena: santifikatua izan bidi zeure izena. Betor zeure reinua gugana. Egin bidi zeure borondatea, nola Zeruan, ala lurrean. Eman egiguzu egun geuren egunoroko ogia. Eta barkatu egizkutzu geuren zorrak, geuk geren zordunai barkatzen diegun bezela. Eta tentazioan erorten eutzi ez gaizatzula. Baizikan libra gaitzazu gaitzetik. Amen.

AINGERUAREN SALUTAZIOA

Abe Maria graziaz betea: Jauna da zeurekin: Bedeikatua zerade zu andee guztien artean eta bedeikatua da zeure sabeleko frutua Jesus: Santa Maria, Jaugoikoaren Ama, regu egizu gu

pekatariokgatik orain, eta geure eriotzako hor-
duan. Amen.

KREDOA,
zeñari beste modu batez deritza:
amabi Apostolu Santuen Sinboloa

1. Nik sinisten det Jaungoiko Aita guziz pode-
rosoa, Zeruaren, eta lurraren Kriadoreagan.

2. Eta aren Seme bakar, Jesu Kristo, geure
Jaunagan.

3. Zeña konzebitu zan Espiritu Santuaren
obraz, ta birtutez, jaio zan Maria Birjinagandik.

4. Padezitu zeban Ponzio Pilatosen agintea-
ren (edo, poderioaren azpian, izandu zan kruzifi-
katua, illa, eta sepultatua.

5. Jaitxi zan infernuetara, piztu zan illen arte-
tik irugarren egunean.

6. Igo zeben Zeruetara, an dago jarririk Jaun-
goiko Aita guziz poderosoaren alde eskuietik.

7. Andik etorriko da, biziak, eta illak juzgatz-
era.

8. Nik sinisten det Espiritu Santuagan.

9. Eleiza Santa Katolika, Santuen komunioa.
10. Pekatuen barkazioa.
11. Aragiaren resurrekzioa.
12. Eta bizitza eterna. Amen.

JAUNGOIKOAREN LEGEKO MANDAMENTUAK DIRADE AMAR

**Leenengo irurak pertenezitzen zaizka
Jaungoikoaren honrari,
beste zazpirak
proximoaren probetxuari**

Leenengo Mandamentuak agintzen digu, Jaungoikoa amatu, eta honratu daigula gauza guzien gañean.

Bigarrenak, juramentu alferrik ez dezagula egin.

Irugarrenak, Festak eta Jai egunak santifikatu ditzagula.

Laugarrenak, geuren gurasoak honratu ditzagula.

Bostgarrenak, inor il ez dezagula.

Seigarrenak, luxuriako pekaturik egin ez dezagula.

Zazpigarrenak, gauzarik ohostu ez dezagula.

Zorzigarrenak, testimonio falsorik inori jaso ez diozagula.

Bedaratzigarrenak, proximoaren emazterik (edo konpañiarik) deseatu ez dezagula.

Amargarrenak, besteren gauzarik, ta hazien-darik deseatu ez dezagula.

Amar Mandamentu oek daude Mandamentu bitan enzerraturik: Jaungoikoa amatzean, eta serbitzean gauza guzien gañean; eta geure proximoa geren buruak bezela serbitzean, eta amatzean.

ELEIZA AMA SANTUAREN MANDAMENTUAK DIRADE BOST

Leenengo Mandamentuak agintzen digu, jai, ta Festa egunetan Meza osotoro entzutea.

Bigarrenak, urtean bein (gutxienaz) ondo konfesatzea.

Irugarrenak, Pazkoa Resurrekziokoetan (konzienziako garbitasunarekin) Altareen Sakramentua rezebitzea.

Laugarrenak, Eleiza Ama Santuak agintzen debanean barautzea.

Bostgarrenak, Amarrenak, ta Primiziak osotaro egitea; eta pagatzea.

**JESU KRISTOK BERAK
INSTITUIDURIK,
BERE ELIZAN EUTZI ZIRAUZKUN
SAKRAMENTUAK DIRADE ZAZPI**

Leenengoa da, Baptisterio Santua.

Bigarrena, Konfirmazioa.

Irugarrena, Penitentzia.

Laugarrena, Eukaristia, (au da, Komunio Santua, edo Altareko Sakramentu Santua).

Bostgarrena, Extremaunzioa.

Seigarrena, Sazerdotearen Ordena.

Zazpigarrena, Matrimonioa.

FEDE SANTUKO ARTIKULUAK
DIRADE AMALAU
Leenengo zazpirak
pertenetzizen zaizka
Dibinidadeari,
eta beste zazpirak
geure Jesu Kristo Jaungoiko,
ta Gizon egiazkoaren
Humanidade Santuari

Dibinidadeari pertenezitzen zaizkan
Artikuluak dirade oek.

Leenengoa da, sinistea Jaungoiko guziz poderoso bakar bategan.

Bigarrena, sinistea Aita dana.

Irugarrena, sinistea Semea dana.

Laugarrena, sinistea Espiritu-Santua dana.

Bostgarrena, sinistea Kriadorea dana.

Seigarrena, sinistea Salbadorea dana.

Zazpigarrena, sinistea Glorifikadorea dana.

Humanidade Santuari pertenezitzen zaizkan
Artikuluak dirade beste oek.

Leenengoa da, sinistea Jesu Kristo gere Jauna Gizona dan partetik konzebitu zana Espiritu Santuaren obraz.

Bigarrena, sinistea jaio zana Santa Maria Birjinagandik, Señora au izanik Birjina (edo donzella, ta garbia) Kristo jaio baño leen, jaiotzean, eta jaio azkero ere beti.

Irugarrena, sinistea Kristok rezebitu zebana eriotzea, ta pasioa gu pekatariok salbatzearren.

Laugarrena sinistea jaitxi zana infernuetara, eta beraren etorrera santuaren itxedeten zeuden Anima justu aek libratu (edo atera) zituana.

Bostgarrena, sinistea il zanetik irugarren egunean resuzitatu zana illen artetik.

Seigarrena, sinistea igo zebana Zeruetara, ta dagoana jarririk Jaungoiko Aita guziz poderosoaren alde eskuietik.

Zazpigarrena, sinistea etorriko dana biziak, ta illok juzgatzera; au da, onai ematera gloria, zerren beraren Mandamentu Santuak guardatu zituen; eta gaiztoai pena sekulakoa (edo beti bein ere bukatu bage iraungo debana) zerren beraren Mandamentu Santuak guardatu ez zituen.

SALBE REGINA

Salbe Regina, miseriordiaren Ama, bizitza, dultzura, ta esperantza geurea, Salbe. Zeurorren deiez gaude Ebaren seme desterratuak. Zeugana gaude suspirioz, sentimentuz, eta negarrez balle triste onetan. Ea bada geure abogada, itzuli egitzatzu geugana zeure begi miseriordiazkoak. Eta destierru onetatik irteten degunean erakutsi eiguzu Jesus, zeure sabeleko frutu bedeinakua. O Birjina Maria klemenziatz, piedadez, ta miseriordiaz betea! Regutu egizu gugatik, Jaungoikoaren Ama Santua, digno izan gaitezen merezitzeko Kristoren prometimentuak. Amen.

Germanus Patriarcha Constantinopolitanus
Encomio in adorationem veneranda Zena Deipara
cap. II. ait: Nemo est, qui liberetur à malis, nisi per te, ó purissima: nemo est, cui donum concedatur, nisi per te, ó castissima: nemo est, cuius misereatur gratia, nisi per te, ó honestissima.

Et D. Bernard. serm. de aquaductu in Nativitate Mariae: Totis medùllis cordium, totis quidem praecordiorum affesctibus, & votis omnibus Mariam hanc veneremur, quia haec est voluntas Domini, qui totum nos havere voluit per Mariam.

Cunt ergo omne donum per manus Mariae habeamus, ipsa nobis hoc concedat, ut nostrum calamum dirigat, ut totum hoc opus nostrum, ipsi consecratum, in dilectissimi filij sui, at que ipsius gloriam, ac honorem cedat: Amen.

KAP. I. KRISTAUBAK JAKIN BEAR DEBAN DOKTRINA SANTUAREN DEKLARAZIOA

§. I.

**Irakasten maio Kristaubari
nori zor dion bere Kristautasuna:
norgandik artu zeban Kristaubaren izena:
zer esan nai deban izen onek:
zer dan Kristautasuna, edo Kristau izatea:
zertarako Jaungoikoak krianu zeban gizona;
eta zein dan Kristaubaren señailea, eta
insignia.**

GALDEZEN DIZUT: Aurra zerade zu Kristauba?

ERANTZUTEN DIZUT JAUNA: Ni Kristauba naiz
Jaungoikoaren graziaz.

G: Norgandik dezu Kristaubaren izen ori?

E: Kristo gere Jaunagandik det izen au.

G: Zer esan nai deu Kristaubaren izen orrek?

E: Kristoren gizona.

G: Zer da Kristoren gizona, edo aintzat nor dadukazu?

E: Baptisterio Santuan profesatu zeban Kristoren Fedea dadukan gizona, eta ofreziturik dagoana beraren Majestadearen Mandamentuak guardatzera.

G: Zertako Jaungoikoak kriatu zeban gizona?

E: Gizonak Mundu onetan ezagutu, amatu, eta serbitu zegian aren Majestade dibina, eta gero ekusi, ta goza zegian bera betiko Zeruan.

G: Kristaubaren señailea, eta insignia zein da?

E: Krutze Santua.

G: Zergatik?

E: Zerren dan Krutzea Kristo Kruzifikatuaren figura, edo itxura, zeñean redimitu ginduzan aren Majestadeak.

G: Zenbat modutara egiten deu Kristaubak bere korputzean Krutzearen señailea, Krutzearen birtutez bere animaren etsaietatik defenditzeko, eta bitoriarekin irteteko.

E: Bi modutara.

G: Leenengo modura, nola?

E: Eskuieko eskuaren beatz andiari arrimatzzen zaio urreneko beatza inklinaturik, edo makurturik, zeñaz gelditzen diraden beatz biak Krutzearen figura, edo itxura eginik; eta figura artan daudela, egiten ditut iru Krutz beatz andienaz: Leenengo Krutzea bekokian: bigarrena auban: eta irugarrena bularretan.

G: Modu orretan ziñatzen zeradenean, Krutze bakoitzean zer esaten dezu? Erakutsi egizu.

E: Krutze Santuaren + señaieagatik: geure + etsaieatik: libra gaitzazu + geure Jaungoikoa.

G: Nola egiten dezu Krutzearen señaiea bigarren modura?

E: Eskuieko esku guzia bekokitik eratsitzen dedala bularraren azpiraño, eta pasatzen dedala esku au berau ezkerreko sorbaldatik eskuieko sorbaldaraño.

G: Modu orretan ziñatzen zeradenean, zer itz esaten dezu?

E: Deitzen diot Trinitade Santisimari modu onetan: Aitaren, eta Semearen + eta Espiritu-Santuaren izenean. Amen.

G: Bekokian, auban, bularrean egiten diranean Krutzeak, eta aizkenengo modu orretara

esku osoarekin Krutzea egiten danean, itz santu oriek esanaz batean; nola deritza orrela Krutzearen señaleak egiteari?

E: Santiguatzea.

G: Itz santu oriek esan bage, Krutzearen señale oriek egiteari nola deritza?

E: Ziñatzea deritza Jauna.

Artu egizu, bada, Krutze santuarekin debozio andia: Krutzea da Jenero humanoaren redenziorako gere Jesu Kristok artu zeban instrumenturik prinzipalena: Krutzean benzutu zituan aren Majestadeak geure etsai guziak, eta oen kontra eutzi zigon Krutzeari birtute andia geure defen-sarako, eta anparorako: Krutze Santuarekin, eta beraren birtutean benzikuko ditugu demonioa, mundua, eta geuren apetitu gaiztoak, baita geure gorputzeko osasunean gaitza egin nai digun edozeiñereko kriatura ere. Krutze Santua adoratzan dezunean esan eikezu: Adoratzan, eta bedeinkatzen zaitugu Kristo, zuk zeure Krutzearen medioz redemitu zenduan mundua.

Ziñatzen, eta santiguatzen geradenean kon-fesatzen ditugu geure Fede Santuko Misterioae-

tan prinzipialenak: Trinitate Santuaren Misterioa, eta Enkarnazioko Misterioa, eta Kristo geure Jaunaren eriotza, eta Pasio Santua. Leenengo Krutzea bekokian eginaz konfesatzen degu Trinitate Santuko leenengo Persona dala Aita: bigarren Krutzea auban eginaz konfesatzen degu, bigarren Persona dala Semea: Irugarren Krutzea bularrean eginaz konfesatzen degu, irugarren Persona dala Espiritu-Santua; eta aizke-nean esku guziarekin Krutze bat, leenengo iru Krutze aek arzeen dituana, eginaz konfesatzen degu, iru Persona aek distinta, edo diferenteak izan arren, irurak dabeela naturaleza dibina bat, eta argatikan diradela Jaungoiko bat bakarra.

Bekokitikan bularraren azpira, edo aurra injendratzen dan lekura eskua jautxitzeaz konfesatzen degu, Aita Eternoaren Semea gizon egin zala Maria Birjinaren entraña garbi aetan: eskua alde ezkerretik alde eskuiera pasatzean, konfesatzen degu, Espiritu-Santuaren obraz egin izan du zala gizon Trinitate santuko bigarren Persona Aita Eternoaren Semea, zeñari deritzon Jesu-Kristo.

Bost beatz eskuieko oetan, daude representaturik Kristoren bost llaga preziosa aek. Eskuieko eskuaren beatz andian dago signifikaturik, edo aditzera emanik Kristoren dibinidatea, edo naturaleza dibina, au da, Jaungoikotasuna: Beatz andi oniri, inklinaturik juntatzen, edo arrimatzen zaion urreneko beatz onetan aditzera ematen da Kristoren naturaleza humana edo gizontasuna: Eta beatz oek biok Krutze aren gisan onela ifeniaz konfesatzen degu Kristok gizona zan partetik, padezitu zebala bere borondatez eriotza, eta Pasioa krutzean gu salbatzearren.

§. II.

Lau gauzatara reduzitzen da Kristaubak jakin bear deban Doktrina.

G:. Zenbat gauza jakitera dago obligaturik Kristauba uso razoezkora datorrenean bereala, bizitza tenporako onetan Jaungoikoa ezagutzeko, amatzeko, serbitzeko, eta gero beste bizitza fin bageko artan beraren Majestade Dibina ekusteko, eta gozatzeko?

E: Lau gauza. Leenena jakin bear deu, zer sinistu: bigarrena, zer Orazio egin: irugarrena, zer obra egin: eta laugarrena zer rezebitu bear deban.

G: Nola jakingo deu, zer sinistu bear deban?

E: Kredoa, eta Kredoa enzerraturik dauden artikulu, edo sententzia brebe aek zer esan nai debean jakinaz.

G: Nola jakingo deu, zer Orazio egin bear deban?

E: Pater-nosterra, eta Paternosterreko Orazio onek zer esan nai deban jakinaz.

G: Nola jakingo deu, zer egin bear deban?

E: Jaungoikoaren Legeko amar Mandamentuak, eta Eleiza santuaren bost Mandamentuak, zer agintzen debean jakinaz; eta aek guziak bear ditu gorde osotoro.

G: Nola jakingo deu, zer rezebitu bear deban?

E: Jesu-Kristok berak inbentaturik, eta instituidurik, edo eginik bere Eleiza Esposa santeari eutzi ziozkan Sakramentuak ondo jakinaz.

DOKTRINA KRISTIANAREN LEENENGO PARTEA

§. III.

Explikatzen dirade Kredoko Artikulu guziak.

G: Nola esan bear degu Kredoa?

E: Nik sinisten det Jaungoiko Aita guztiz poderoso, Zeruaren, eta lurraren kriadoreagan, &c.

G: Nai ditutu jakin, eta ezagutu Kredoa arkitzen diraden Misterio, eta Artikulu, edo sententzia brebe aek guziak?

E: Bai Jauna: zerren badakit bestela ezin salbatuko naizana: eta baldin neure kulpaz ez badakit zat, baita nagoana ere pekatu mortalean.

G: Bada deseatzen dezunazkero jakitea, eta ezagutzea; esan egidazu: Zenbat Jaungoiko dirade?

E: Bat bakarra egiazkoa, eta ez besterik.

G: Nor da Jaungoikoa?

E: Da Jaun bat infinitamente ona, sabiduria, edo jakiunde infinitoa debana, poderio infinitoa,

justua, eternoa, gauza guztien prinsipioa eta fiña, eta berak prinsipiorik, edo asierarik ez debana, eta ez izango ere kaburik, edo akabeerarik batere.

G: Jaungoiko au izanik bat bakarra, egiazkoa; ote da Persona bat bakarra?

E: Ez Jauna, baizikan iru Persona distinta, bata besteagandik diferentea dana; bañan goizian igoalak, eta berdinak.

G: Nor dirade iru Persona oek?

E: Aita, Semea, eta Espiritu-Santua.

G: Aita Jaungoikoa da?

E: Bai Jauna.

G: Semea Jaungoikoa da?

E: Bai Jauna.

G: Espiritu-Santua Jaungoikoa da?

E: Bai Jauna.

G: Oek ez ote dirade iru Jaungoiko?

E: Ez jauna, baizikan Jaungoiko egiazko bat bakarra, eta eternoa.

G: Zergatik, bada, ez dirade iru Jaungoiko, iru persona diraden bezela?

E: Zerren personak iru, eta distintak badira ere ez deba esenzia bat baizikan guztien

artean: eta ala, iru persona oek debeat esentzia, naturalez, edo izate dibino bat, Jaungoikotasun bat. Onegatik, bada, iru persona distinta, edo diferente oek, ez dirade iru Jaungoiko, baitzikan Jaungoiko egiazko bakar bat.

G: Aita ote da Samea?

E: Ez Jauna.

G: Espiritu-Santua ote da Aita, edo Semea?

E: Ez jauna.

G: Zergatik, bada.

E: Zerren personak diraden distintak, edo diferenteak, irurak izan arren Jaungoiko egiazko bakar bat; zeña dan Trinitate Santuko Misterioa, konfesatzen deguna.

G: Nola da Jaungoikoa guztiz poderosoa?

E: Zerren bere borondate, edo nai dibinoaz, beste bage, egiten deban nai deban guzia: eta ala, bere eskuan daduka Jaungoikoak nai deban guzia egitea, eta ez da posible iñork aren Majestadeari ezer eragozte, eta ezerk resistitzea; zerren, izanik Jaungoikoaren borondatea lomis-mo, ta ainbeste, nola Jaungoikoaren beraren poderioa: da gauza agiria, egin daikena berak nai deban guzia.

G: Jaungoikoa Kriadorea da?

E: Bai jauna.

G: Nola da Kriadorea?

E: Zerren berak deban berez poderioa, eta birtutea sortzeko nai deban guzia. Eta nola ez dan Jaungoikoaren poderioentzat inposiblerik eta difikultaderik, eta ez nekerik ere: berak aren Majestadeak, nekerik eta difikultaderik batere bage, solo bere borondateaz, edo nai izanaz beste bage, sortu zituan Zeruak, eta Lurra, gauza bisible, ta inbisible, guziak, au da: ezerezetik egin zituan gauza guziak, zerren leen ez ziraden gauza aei eman zien izana, edo naturala; eta onela gelditu ziraden, begiakin ekusi litezkean, eta ekusi ezin litezkean gauza guziak kriaturik, edo sorturik; eta ain erraz nola kriatu zituan desegindu ditzake, edo lengo ezer ez artara bertara itzuli ditzake gauza oek guztiak beraren Majestadeak nai baleu, nai izanaz beste bage.

G: Nola, bada, diraute, eta iraungo debe gauza kriatu guziok desegindu bage, edo ezerezera biurtu bage.

E: Zerren Jaungoikoak konserbatzen, eta mantenitzen dituan, bera gauza guzietan egonaz, edo arkituaz.

G: Jaungoikoaz ostean, iñork ere bestek kria-tu, edo sortu ote daike gaugarik?

E: Ez, zerren ezin izan dite beste Kriadorerik, edo gauzarik sortutzeko poderiorik berez deba-nik, Jaungoikoa bera baizik.

G: Jaungoikoa Salbadorea da?

E: Bai jauna; bada ematen digu geure salba-ziorako bere grazia.

G: Jaungoikoa Glorifikadorea da?

E: Bai, bada ematen die gloria, beraren gra-zian perseberatzen debean guziai.

G: Aita, Semea, eta Espiritu-Santua, iru Perso-na oek, zenbat Kriadore, Salbadore, eta Glorifi-kadore ote dirade?

E: Nola iru Persona distinta oek diraden Jaun-goiko bat bakarra, ala dirade Kriadore bat, Salbadore bat, Glorifikadore bat bakarra; zerren iru-rak debe Jaungoikotasun bat, on izate bat, borondate bat, poderio bat.

G: Trinidad santuko Persona oetatik zein egin zan gizon?

E: Semea bera, eta ez besterik.

G: Nola, eta nun gizon egin zan?

E: Gere naturaleza artuaz, Maria Birjinaren entraña garbi aetan.

G: Noren obraz?

E: Espiritu-Santuaren obraz.

M: *Orrenbeste erantzutea da bastante, edo asko adina zuretzat: badarikan ere, nai dizut Artikulu au klarezia geiagorako explikatu, memoriaz ikastera obligatzen ez zaitularikan ere explikatuko degun modu onetan.*

Artikulu onetan, bada, deklaratzeko da, Jaungoikoaren Semea zer modu marabilosoan gizon egin zan; zerren, gizon guziak konzebitzen, eta jaiotzen badira ere aitagandik, eta amagandik: eta orregatik beragatik, gelditzen ez bada ere ama donzella, edo birjindadearekin, semea konzebitu, ta jaio ezkerro; au onela dalarik ere, nai izan zebanean Jaungoikoaren Semeak gizon eginikan gelditu, orregatikan ere nai izandu ez zeban aitarik izan zegian lurrean, edo munduan, baizikan Ama bakarrik Aitarik bage. Ama, au beti izandu zan Birjina, edo donzella garbia; zerren Espiritu Santuak (au da) Trinitade santuko iruga-

rren Persona dibinoak, Aitarekin, eta Semearekin
igualmente Jaungoiko bat bera danak, bera
poderio infinitoaz formatu zeban Maria Birjinaren
odol garbitik, eta donzella aren beraren sabel
birjinalean aur perfektisimo, ta guziz eder baten
korputza: eta orduan, edo instante artan bertan
kriatu zeban, edo sortu, anima bat guziz exze-
lentea; zeña juntatu, eta unitu izan zigon aur
eder, eta perfektisimo aren korputzari; eta au
guziau Jaungoikoaren Semeak juntatu zigon bere
Persona dibinoari berari. Bañan, esan ditugun
gauza oek guziak, edo obra miragarri au guzia
egin izandu zan beingoan, batetan edo instante
batean bertan. Modu onetan, bada, Berbo Eter-
noa, leen solamente Jaungoikoa zana (tenpora
bage, eta asierarik bage) asi izandu zan tenpo-
raz gizon izaten; eta nola Jesu-Kristok Jaungoiko-
tasunean, edo Jaungoikoa dan partetik ez deban
amarik, baizikan Aita bakarrik; ala, modu artara,
gizontasunean, edo gizona dan partetik ez deu
aitarik, baizikan Ama bakarrik.

1. Emendikan gatoz ezagutzera, eta konfesa-
tzera fedearen medioz, fedeak erakusten dirauz-
kun egia oek. Leenena: Birjina Maria aurdun ger-

tatu zalarikan ere, gelditu zala leen bezela donzella, eta garbi, zerren ez zeban inoiz ere izan gizonan artetik inorekin ere parterik batere; eta nola konzebitu ez zeban gizonaren obraz, baizikan Espiritu-Santuaren obraz, eta birtutez: gelditu zan leen bezela gero beti donzella, eta garbi.

2. Bigarrena, MARIA Santisimak konzebitu arren Kristo bere sabel birjinalan Espiritu-Santuaren obraz, orregatikan ere ez degu esan bear, Jesu-Kristoren Aita Espiritu-Santua dala: zerren, aita izaterako ez da asko, edo bastante, edozein moduz gauza bat egitea; baizikan, orretarako bear deu batek bere sustanziati, edo naturalezati bertati, egin gauza ori. Espiritu-Santuak, bada, nola berak deban naturalezati, edo sustanziati bertati ez zeban egin Jaungoikoaren Semearen korputza, baizikan Maria Birjinaren odol garbitik, argatikan ez deritza, eta ezin izan ere zeitean Kristoren Aita Espiritu-Santua.

3. Irugarrena: Kristo, Jaungoiko dan partetik, da Aita Eternoaren Seme Eterno bakarra, zerren Aita dibinoagandik deban bere Dibinidadea, edo Jaungoikotasuna eternidadetik (au da) tenpora guzia baño ere leenagotik, asierarik edo prinzi-

piorik bage; zerren Eternidadeak ez deu prinzi-
piorik, asierarik, eta finik, edo akaberarik batere;
onela, bada, Kristo Jaungoikoa dan partearren;
da Aita Eternoaren Seme Eternoa, eta bakarra:
Bañan Kristo, gizona dan partetik, da Maria San-
tisimaren Seme bakarra, zerren Ama andre birji-
na, donzella garbi onegandik deban korputz
humanoa, bañan ez eternidadez edo prinzipio
bage; baizikan, tenporaz asia, eta artua. Eta nola
tenpora orretan Kristok artu ez koban personali-
daderik, edo personatasunik batere, naturaleza
humanoa, edo humanidadea baizikan bakarrik:
bada personalidade humanoa, eta humanidadea
dirade gauza bi diferentak: ala Kristok, izanaga-
tikan ere naturaleza bi, bata dibinoa Eternidade-
tik, zeñaz dan Jaungoiko egiazkoa; eta bestea
humanoa tenporaz artua, zeñaz dan gigon egiaz-
koa: ez ditu orregatikan ere Persona bi, baizikan
bat bakarra, bañan ez persona humanoa, baizi-
kan Persona Dibina solamente. * *Vide Symbol, S.
Athanasij.*

Laugarrena: Iru Persona Dibina aek beingo-
an, eta *juntamente* konkurritu zebean Semearen
Enkarnazioa egitera; zerren, nola guzietan arki-

tzen dan, edo guziak debean poderio bat, jakiunde bat, borondate, edo nai bat; Persona Dibina batek egiten deban gauza, ori bera egiten debe guziak junto: bañan orregatikan ere, poderioaren obra guziak atribuitzen zaizka Aita Eternoari jakiundearenak (edo sabiduriarenak) Semeari, eta amorioarenak Espiritu-Santuari; eta zerren Enkarnazioko obra inefable, eta admirable auzizanduz, Jaungoikoak jenero humanoari zigon amorio infinito aren obra: argatikan obra auzibuitzen zaio Espiritu-Santuari; eta ala, ondo konfesatzen degu, esaten degunean: Jesu Kristo konzebitu, edo enkarnatu, edo gizon egin izanduzala MARIA Birjinaren sabel birjinalean Espiritu-Santuaren obraz.

Modu onetan, bada, explikatzen da Misterio auzikarezia, eta notizia geiagorako; badarikan ere (len adbertidurik dagoan bezela) ez daduka jente komunak modu onetan, eta onenbeste menudenziarekin Misterio auzikastera, eta jakiterik obligaziorik. Asko dan adinbat izango da lenago galdezen diraden iruzgauza aek, orain, galdetuaz, berriro esango dan gauza jakitea.

Galdetzen zaio, bada Kristauari: Kristo jaio zanean, nola gelditu zan MARIA Ama andrea?

E: Kristo jaio baño len, jaiotzean, eta jaio azkero ere, Maria Ama andeea gelditu zan beti leen bezela, birjina, edo donzella, eta garbia.

G: Zergatikan Kristo gizon egin zan?

E: Gu redimitzeagatik, libratu, eta reskatzegatik geuren pekatuetatik, demonioaren kaptiberiotik, ta esklabitudetik; eta salbatu gindezen.

G: Nola redemitu, reskatadu, edo libratu ginduzan?

E: Padezituaz ogeita amairu urtean gugatik trabaju, eta tormentu andiak, eta eriotza afrenta andiaz betea rezebituaz krutze batean, an bere eskuak, eta oñak ilzeakin josirik, eta napur biren erdian ifenirik, nun bere bizia emanaz gañera, ixuri izan zeban bere odol preziosoa; eta onela eutzi ginduzan redimiturik.

G: Jaungoikoa zan partetik, ala gizora zan partetik ilik gelditu zan krutzean?

E: Gigona zan partetik il zan, zerren Jaungoikoa zan partetik (izanik espiritua) ezin il zeitean.

G: Zer da ilik gelditzea?

E: Anima korputzagandik apartatzea.

G: Kristo krutzean il zanean Korputz Santua, eta Anima Santua apartadu ote ziraden Dibinidadeagandik?

E: Ez ziraden beiñ ere apartadu Dibinidadeagandik, baizikan gelditu ziraden Korputza, eta Anima alkargandik apartadurik, bañan ez Dibinidadeagandik; zerren ala Korputza, nola Anima gelditu ziraden Dibinidadearekin uniturik.

G: Anima Santua Korputz Santutik apartadu zanean, nora jatxi zan?

E: Ez zan jaitxi kondenaturik zeuden kriatura desdixatu aen lekura, baizikan Linbora, au da: Abrahamen Senoa deitzen zitzaion lekura, nun arkitzen ziraden Anima justuak deteniturik, Kristoren etorrerari itxedeten, edo esperatzen: eta Kristoren Anima gloriosoa Dibinidadearekin uniturik aruntz agertu zanean, bertatik ekusieragin zien bere dibinidadea an arkitzen ziraden Anima justu aei guziai, eta ala gelditu ziraden bereala instante artatik glorioso, edo gloriaz beterik.

G: Korputz santua nun gelditu zan?

E: Krutze santutik eratxi, eta gelditu zan sepulturan, arri andi batez sepultura itxirik.

G: Kristo il zanetik zenbatgarren egunean resuzitadu, edo piztu zan?

E: Irugarren egunean.

G: Zer da resuzitatzea, edo piztutzea?

E: Anima bere leengo korputz artara bertara biurtzea, eta arekin berriro juntaturik, eta uniturik gelditzea.

G: Nork resuzitadu zeban Kristo?

E: Bera resuzitadu zan bere poderioz, eta birtutez.

G: Nola resuzitadu zan?

E: Juntatuaz bere Anima, eta bere Korputza alkarrekin; modu orretan gelditu zan glorioso resuzitaturik, andik aurrera ezin bein ere berriz il zeitean moduan.

G: Resuzitadu zanetik zenbatgarren egunean igo zeban Zeruetara; eta noren birtutez?

E: Berrogeigarren egunean, eta bere birtutez.

G: Nola dago Kristo Zeruan?

E: Jarririk, edo eseririk Aita Eternoaren alde eskuietik.

G: Zer da Aita Eternoaren alde eskuietik Kristo eseririk egotea?

E: Aita Eternoak ez deu alde eskuirik, eta ezkerrik, zerren da Espiritua solamente; eta ala, itz onetan irakasten zakuna da, ezen Kristok, Jaungoiko dan partetik, igualmente (edo berdin) debala gloria Aita Eternoarekin, eta Espiritu-Santutarekin: bañan Kristo izanik juntamente gizona, gozatzen debala gizona dan partetik, Zeruan diraden beste Santu, eta Santa guziak gozatzen debean baño gloria geiago.

G: Noiz etorriko da Kristo, biziak, eta illak juzgatzera?

E: Munduaren fiñean, eta aizkeneengo egunean; eta orregatik deritza egun ari, Juizioko eguna.

G: Bizien, eta illen korputzak resuzitatuak geldituko ote dirade egun artan, eta betiko?

E: Bai jauna; eta guztiak presentaturik arkituko dirade Jesu-Kristo Juez supremo aren presentzian, eta aurrean.

G: Zeintzuek dirade illak, eta biziak?

E: Biziak aditzen dirade, graziako estaduan eriotzeak mundu onetan arkitu zituan aek; eta beste modutara deitzen diegu oei onak. Illak aditzen dirade, pekatu mortaleko estaduan erio-

tzeak mundu onetan arkitu zituan aek; eta beste modutara deitzen diegu oei, Gaiztoak.

G: Zer premio emango die Kristok onai, eta gaiztoai?

E: Onai emango die sekulako gloria eta, ala, Onak juango dirade korputz ta anima Zerura Jesu Kristoren konpañian, gloria beti iraungo debana gozatzeraz: eta Gaiztoai emango die sekulako penak; eta ala Gaiztoak juango dirade Infernura korputz ta anima, erretzen an egotera demonio guzien konpañian, eta Jaungoikoaren prezentzia eder artatik betiko, remediorik bage, apartaturik, edo urtegirik; zeña izango dan pena ta tormentu guztien artean andiena.

G: Beraz Kristo, geure Jaungoiko, eta Gizon egiazkoa, Juez justua da?

E: Bai, guziz justua da.

G: Graziako estaduan eriotzeak arkitzen dituan aientzat baldin badago Zeruko gloria; esan egidazu: zer da Grazia?

E: Da grazia: izan dibino bat; geure animari bizitza ematen digona, zeñaz mediante arkitzen geraden Jaungoikoaren adiskide, beraren seme

adoptibo ta eskojitu; eta gloriaren heredero eginik.

G: Zerzaz galtzeen degu grazia dibina?

E: Pekatu mortala eginaz.

G: Zer da pekatu mortala?

E: Da imajinatu al ditean gaitzikan andiena, kentzeen diguna geuren animaren bizitza, zeña dan grazia: Jaungoikoaren etsai mortal egiten gaituana, eta demonioaren esklabo, eta seme izatera biurtzen gaituana, eta infernuaren heredero eginikan eutzitzen gaituana.

G: Nola egiten da pekatu mortala?

E: Esanaz, edo itzeginaz: obratuaz, edo eginaz: pensamentu konsentituaz, edo deseatuaz gauzaren bat Jaungoikoaren Lege eterna aren kontra materia grabean, edo gauza andian.

G: Pekatu mortal bakar batek merezitzen ditu infernuko pena ta tormentu eterno aek guziak?

E: Bai, jauna.

G: Zer da Infernua?

E: Infernua da: leku, edo puesto arrigarri bat, nun demonio guziak, eta beste kondenatu guziak dauden, eta egongo diraden beti, ta beti, bein ere fin bage, penaz ta tormentuz beterik,

inoiz ere andik irteteko, edo libratzeko esperantzarik batere bage.

G: Zer da Gloria?

E: Gloria da: ondasun, eta kontentu egiazko posible guztien betetasun bat, gaitzikan eta miseriarikan batere ez dabena; nun Bienabenturaduak, Jaungoikoa ekusiaz, eta amatuaz, dau-den gozatzen, eta egongo diraden posesio dultze artan, deseatu al litezkean kontentu guziakin, eta inoiz ere galtzeeko bildur bage, zerren beti iraungo deban akaberarik, edo finik bage.

G: Iñor ere salbatu ote diite, eta juan gloriara, Eleiza Ama santuaren semerikan baizen besterik?

E: Ez, jauna; zerren Eleizan sartutzen diraden aentzat, edo Eleizaren mienbro egiten diraden aentzat baizen ez dago salbaziorikan: eta ala, Eleizaz kanpora, edo Eleizan sartutzen eztanik, ez da salbatzen, eta ezin arkitu ere daike salbaziorik.

G: Nola gizona Eleizaren mienbro, eta seme egiten da?

E: Eleizara sartuaz.

G: Nundik, edo nola Eleizara sartuko da?

E: Baptisterio santutik; au da; Baptisterio santua rezibituaz.

G: Zer da Baptisterio santutik Eleizara sartzea?

E: Kristau egitea; eta ori da, Eleiza Ama santuaren seme, eta mienbro eginikan gelditzea.

G: Zer da Eleiza santua?

E: Kristau fiel guztien kongregazioa, unioa, edo multitudea.

G: Nor da Eleiza militante aren, edo mundu onetako Kristau fiel guzien burua?

E: Kristo da buru inbisiblea, eta Prinzipala; au da: geure begiakin orain ezin ekusi daikegun burua da Kristo; eta ez solamente mundu onetan; bañan baita Zeruan ere. Buru bisiblea, edo mundu onetan begiakin ekusten dan burua, da Aita Santu Romakoa, Kristoren beraren Bikarioa, zeña eutzi zigun aren Majestadeak bere lekuan, eta bere Eleiza Santu onen burutzat lurrean; eta onegatikan gaude guziok Aita Santu Romakoari obedimentua ematera obligatuak.

G: Kristau Fielak partizipante ote dirade, edo badirade parte bata bestearen ondasun espiritualetan?

E: Bai, jauna, zerren izanik korputz mistiko baten mienbroak; au da izanik Kristau Fiel bakoitza Eleiza Santuaren mienbroa, laguntzen zaizka alkarri euren orazio, eta obra birtutezkoakin: eta oni deritza, eta au da Santuen Komunioa.

G: Arkitzen ote da Eleiza orretan geuren pekatuen barkaziorako remediorik?

E: Bai, bada remedio ori eutzi zigun Kristok berak instruidu. edo egin zituan Sakramentuetan, aetan eutziaz depositadurik bere eriotzako, eta pasio santuko merezimentuak. Au konfesatzan degu Kredoan esanaz: Sinisten det pekatuen barkazioa.

G: Sakramenturen batean gelditu ote zan Kristo bera?

E: Bai, jauna: Sakramentu Eukaristiakoan gelditu zan; zeñari deitzen diogu beste modura: Komunioko Sakramentu Santua, eta Altareko Sakramentu Santua. Sakramentu onetan dago, bada, Kristo; zerren Hostia konsagratuan dago Kristo guzia bizirik, eta, ainbeste dago Kaliza Santuan; ez gutxiago, eta ez geiago.

G: Nola gelditzen da Kristo Hostian, eta Kalizean?

E: Sazerdoteak bere presentzian Altare santuan dadukan hostia (zeña dan legamia bageko ogia) eta Kalizean ifenirik dadukan maats ardoa konsagratuaz, beste bage.

G: Nola konsagratzen ditu hostia, eta ardoa?

E: Jesu Kristok ogiaren, eta ardoaren konsagrazioan esan zituan itz dibina aek esanaz bear dan intenzioarekin, eta aren Majestadearen memorian, eta representazioan.

G: Hostia konsagratzeko Sazerdoteak esaten dituan itz dibina aen birtutez, zer gelditzen da hostian?

E: Jesu Kristoren Korputz bizia.

G: Ardoa konsagratzeko esaten dituan beste itz dibina aen birtutez, zer gelditzen da Kaliza Santuan?

E: Jesu-Kristoren odol bizia.

G: Zerutik jaitxitzen ote da Kristo hostiara, eta kalizera?

E: Ez, Jauna: baizikan, Zeruan dago beti Kristo; eta zeruan dagoelarik, eta an gelditzen dalarik ere, gelditzen da modu marabiloso batez aren Majestadea hostian, eta Kaliza santuan.

G: Nola, bada, ori orrela?

E: Zerren Sazerdoteak, konsagraziorako eduki bear deban iritenzioarekin batera esaten dituan itz santu, dibina, eta poderoso aen birtutez pasatzen dan hostiak deban ogiaren substantzia Kristoren Korpotz-bizia izatera; eta kalizean dagoan ardoak deban substantzia pasatzen da, beste itz dibina konsagrazioko aen birtutez, Kristoren odol bizia izatera: eta onela, Zerutik lurrera jautxi bage, gelditzen da Kristo Jaungoiko ta gizon egiazkoa bizia hostia konsagratuan, eta Kaliz konsagratuan.

G: Komunio Santua rezebitzen degunean, Hostia konsagratu artan rezebitzen ote degu ogirik, edo ogiaren substantziarik?

E: Ez, jauna, baizikan Kristo bizia bera; zerren ogia (leen esan degun bezela) konbertidu zan Kristoren Korputz bizitaren substantzian; eta ardoa aren Majestadearen beraren Odol biziaren substantzian; eta onegatikan, bada, an ez da gelditzen, edo arkitzen, ogiaren substantziarik batre, baizikan ogiaren iruditasuna, edo aparienzia, eta ogiaren akzidenteak bakarrik: akzidenteak dirade ogiaren kolorea, usaia, saborea, figura, eta kantidadea, au da, anditasuna, edo txikitasu-

na; eta ainbeste erantzuten det Kaliz Santuagatik, zerren ardoa konsagraturik gelditu zan instante artatik, an ez zan gelditu arraizkero ardorik, edo ardoaren substantziarik, akzidenteak baiizen besterik ardoaren gauzarik.

G: Hostia asko Sacerdoteak konsagratzen dituanean, zenbat hostia diraden, beste ainbeste Kristo ote daude hostia Santuaetan?

E: Ez, jauna; zerren Kristo Jaungoiko, ta Gizon egiazko bat bakarra baizen ez da beste Kristorik; eta aren Majestadea ere ez da aumentatzen, eta repartitzen hostia aetara: eta ala Kristo Jaungoiko, eta Gizon egiazko bakar bat bera arkitzen da, eta dago Hostia konsagratu guzietan igualmente, edo berdin.

G: Beraz, milla persona, komulgatzen diraden horduan, persona aetatikan batek rezebitzen deu beste guztiak adinbat: eta beste guziak, persona bakar ark adina rezebitzen debe, ez gutxiago, eta geiago?

E: Ala da egia: Kristau batek rezebitzen deban Kristo bizi ori bera rezebitzen debeat beste guztiak; eta Kristau bakoitzak Kristo guztia, Jaungoiko, eta Gizon egiazko bizia.

G: Hostia konsagratua Sazerdoteak partitzen, edo zatitzen debanean, zatitzen ote deu Kristoren Korputza, edo Korputz aren parterik?

E: Ez jauna; eta ala, zati zati egingo baleu ere Hostia Santua, orregatikan ere zatirik ezin kendu leikeo Kristoren Korputz Santu ari: argatikan dago, bada, Hostiaren zati guzietan Kristo bat bera osorik: eta zatirik txikienean dago beste guzietan bezela bizirik, eta osorik.

G: Aita, eta Semea eta Espiritu-Santua, Trinitade Santu guzia ote dago Altareko Sakramentu Santu onetan?

E: Bai, jauna, ala da egia: bada an dago Jaungoiko bat guzia.

G: An ote dago Maria Santisima, edo beste santuren bat, edo Aingeruren bat?

E: Ez dago Sakramentu artan Maria Santisima, eta ez beste Santurik, ta Santarik, eta Aingerurik batere.

G: Animea eternoa ote da, edo bein ere kaburik, eta finik bage beti iraungo debana?

E: Bai, jauna; zerren iraungo deu eternidade guzian, edo bein ere fin bage.

G: Zer suertek itxedeten dio eternidade guzian?

E: Suerte bitatikan batek; edo itxedeten dio gloriak, zeñean beti biziko dan Jaungoikoa gozatzzen Bienabenturaduen artean, eta konpañian; edo itxedeten dio infernuak, zeñean bizi bearko deben demonioakin, eta beste kondenatu guzien konpañian, pena eternoak padezitzen; eta au da Kredoan konfesatzen degun aizkenengo Artiku-lua esaten degunean: *Sinisten det Bizitza eterna*. Eta oneraño da guk distinzio, eta deklarazioare-kin sinistu bear degun guztia.

§. IIII.

**Akto Fedekoa, Esperanzakoa,
eta Karidadekoa zer diraden,
noiz egin bear diran,
eta egingo diran.**

G: Kristaubak zertan geiena, eta prinzipal-mente exerzitatatu bear deu, Jaungoikoari agrada-tzeko beraren serbitzioan, eta bere animaren salbazioa alkanzatzeko?

E: Akto Fedekoak, Esperantzakoak, eta Kari-dadekoak egiten afektoaz, eta obraz.

G: Zer da Akto Fedekoa?

E: Da neure gogoaz, eta biotzaz firmeza guziarekin osotoro sinistutzea Kredoan enzerraturik dauden misterio, artikulu, eta egia aek gustiak, zerren Jaungoikoak berak rebelatu, edo aditzero eman zirauzkan Eleiza Ama santuari, eta onek zerren neuri proponitzen, eta irakasten dirauztan, bera sinistua iran dadin; eta Kredoan enzerraturik dagoanaz ostean Eleizak berak Fedeko gauzatat, rezebiturik dadukan guzia nik sinistea.

G: Nola egiten da Akto Fedekoa?

E: Atenzioarekin Kredoa esanaz, eta sinistuez an deklaraturik dauden misterio, eta egia guztia, eta Eleiza Ama santuak Fedeko egiatzat sinisten deban guzia sinistuez.

G: Zer da Akto Esperantzakoa?

E: Da artutzea neuregan, edo neurekiko esperanza firmea, Jaungoikoak bere on izate infinitoz, eta Jesu-Kristoren merezimentuak mediante diralarikan, salbatuko nabela, eta

neure salbaziorako bear ditudan medio guztiak emango dirauztala beraren Majestadeak.

G: Nola egiten da Akto Esperanzakoa?

E: Konfiantza osoarekin neure biotza Jaungoiko miseriakordioagana altxaturik, Paternosterra atenzioarekin esanaz; zerren orazio onetan eskatzen diogu Jaungoikoari grazia, eta gloria.

K. Zer da Akto Karidadekoa?

E: Da neure biotz guztia Jaungoikoagana ifentea, eta amatzea beraren Majestade dibinoa gauza guzien gañean, naiago izanaz neure bizia, ta beste gauza guziak galdutzea leenago, ezen ez ofenditu aren Majestadea, zerren dan ondatsun infinitoa, edo bera danagatik beste motibobage.

G: Nola egiten da Akto Karidadekoa, edo Amoriozko Aktoa?

E: Neure biotz guztia Jaungoikoagana paraturik, Akto kontriziokoa esanaz atenzio, eta debotzio andiarekin.

G: Noiz dago obligaturik Kristauba Akto Fedekoa, Esperanzakoa, eta Karidadekoa egitera?

E: Leenena: uso razoezkora datorrenean aditzera ematen zaionetik obligazio au debana

pekatu mortalaren azpian: tenpora orretan, bada, egin bear ditu leenena.

Bigarrena: urtean bein gutxienaz.

Irugarrena: Fedearen, edo Esperantzaren, edo Karidadearen kontra etorten zaionean ain andia ta fuertea tentazioaren bat, nola ezin bere-gandik kendu dezakean, edo bentzutu tentazio ori, Akto oek eginaz baizen, bestela.

KAP. II.

DOKTRINA KRISTIANAREN BIGARREN PARTEA

§. V.

**Irakasten da
zer Orazio egin bear degun.**

G: Ote gaude (Kristaba) oratzio egitera obligaturik?

E: Bai, jauna; Kristok berak eutzi zigun Mandamentua, zeñean agintzen digun, egin daigula oratzio justua.

G: Zer da ori?

E: Da, geren biotza, eta afekto ona Jaungoikoagana ifenirik, konfiantza osoarekin eskatzea beraren Majestadeari, zaizkun doe, ondasun, edo mesede guziak.

G: Noiz gaude obligatuak oratzio egitera?

E: Nezesidade graberen batek, edo andiak, arkitzen gaituan tenpora guzian.

G: Zertzaz, edo zer gauzarekin regutzen, edo oratzio egiten zaio?

E: Oratzioakin, eta Sakrifizioakin.

G: Oratzio guzien artean zein da prinzipalena, exzelenteena, eta zeñarekin bear diogun Jaungoikoari regutu?

E: Paternosterreko Oratzioa.

G: Nork inbentatu, edo komponitu zeban, eta irakatsi zigun Paternosterreko oratzioa?

E: Jesu-Kristok berak inbentaturik, irakatsi zien bere Apostoluai, esan izandu zien horduan: *Neure Diszipuluak, modu onetan egingo dezue Oratzioa: Aita geurea, Zeruetan zaudena: &c.* Eta, ala, Apostolu Sagraduen medioz irakatsi zigon Kristok bere Eleiza Esposa Santuari, eta Eleiza Ama Santu onek bere seme guztioi.

G: Oratzio orretan zer eskatzen diogu Jaungoikoari?

E: Nezesitatzen ditugun ondasun guztiak; prinzipalena gloria, eta gloria alkantzatzeko bear degun grazia.

G: Zer Sakrifizio da Jaungoikoari geiena agra-datzen zaiona, eta guk ofrezitzen dioguna?

E: Meza santuko Sakrifizioa; eta au da Sazerdotearekin batean Jaungoikoari ofrezitzen dioguna, entzuten degun oro.

G: Zer ofrezitzen diogu Jaungoikoari Meza Sakrifizio santu orretan?

E: Jesu-Kristo bera, zeña ofrezitzen zaion Altare santuan bere Aita Eternoari gere remediorako, Krutze santuan ofrezitu zitzaion bezela.

G: Zer frutu ateratzen degu Sakrifizio santu orretatie?

E: Estadu graziazkoan baldin bagaude, alkanzatzun degu graziaren augmentua, geuren pekatuen satisfazioa, eta Jaungoikoari representatzun dirauzkagun geuren nezesidade guztien remedioa; eta baldin bagaude pekatuaren estaduan, ematen dirauzku Jaungoikoak bere auxilioak, negar egin dagigun geuren pekatuakgatik dolore ta arrepimentu egiazkoarekin, onela irten gaitean pekatutik graziaren estadura.

G: Nola regutu bear diogu, ta ofrezitu Jaungoikoari Sakrifizio oek, aditu ditzan geure oratzioak, edo eman deigun eskatzen diogun guzia geuren nezesidade guzien remediorako?

E: Oratzio eginaz, eta Sakrifizioak ofrezituaz atenzio, ta debozio andiarekin beraren Majestadeari, beragan ifenten degula konfiantza osoa, eta geurengan batere konfiatu bage; eta onez gañera, idukiaz siniste firmea, egin daikeana aren Majestadeak berak nai deban guztia.

KAP. III.

DOKTRINA KRISTIANAREN IRUGARREN PARTEA

§. VI.

**Irakasten zaio Kristaubari
zer obratu bear deban.**

G: Zer egitera gaude obligaturik?

E: Jaungoikoaren Legeko Mandamentuak, eta Eleiza Ama Santuak bere Mandamentuetan agintzen diguen guzia egitera: edo Mandamentu aek guziak osotoro guardatzera, ta kunplitzera gaude obligaturik.

G: Nola guardatzen ditugu osotoro, ta batere ausi bage Mandamentu Santuak?

E: Geuren pensamentu guziak, itz guziak, eta obra guziak Mandamentu Santu aekin konformatuaz.

G: Mandamentu santuak osotoro modu orretan guardatzen dituan Kristaubak, zer premio Jaungoikoagandik alkantzatuko deu?

E: Gloriako bizitza eterna, edo fin bagea.

G: Zenbat modutara Kristau gaiztoak ausitzen ditu Mandamentuak?

E: Iru modutara: Pensamentu gaiztoa konsentituaz bere biotzean, edo gogoan, itz gaiztoa esanaz, eta obra gaiztoa eginaz.

G: Zer merezi deu modu orietatik batean Mandamenturen bat grabemente ausitzen deban?

E: Merezitzen ditu bertatik infernuko pena, eta tormentu eterno guziak.

G: Beraz, pensamentu gaizto bat, edo deseo gaizto bat bere gogoan konsentituaz materia grabean Mandamenturen baten kontra, ezaguturik pensamentu, edo deseo ori gaiztoa dana: izango da bastante pekatu ori bakarrik animea kondenatzeko?

E: Bai jauna; zerren pensamentu, edo deseo bat gaiztoa dana ezaguturik, admititzen deban bere borondate libreaz bere biotzean, ala admititzen deban instante artan bertan ausitzen deu Jaungoikoaren Lege santua; eta orrenbeste da bastante pekatu izateko, pensamentu, edo deseo ura, obraz exekutatzen ez badeu ere.

G: Ote dadukagu obligazio andirik jakitera Mandamentu Santuak zer agintzen diguen egi-tea, eta zer debekatzen diguen?

E: Animako kondenazioaren penan dago bakoitza obligaturik jakitera Mandamentu bakoitzean zer agintzen zaion, notizia orrekin guarda ditzan batere ausi bage, ez ignoranziaz, eta ez maliziaz.

G: Esan egiztazu Jaungoikoaren Legeko Mandamentuak.

E: Jaungoikoaren Legeko Mandamentuak dirade amar, &c.

G: Amar Mandamentu oriek zertara reduzitzen dira, edo zertan daude enzerraturik?

E: Guziak enzerratzen dira Karidadean; eta ala, amatzen debanak Jaungoikoa bera danagatik gauza guzien gañean, eta Jaungoikoagatik amatzen debanak bere burua bezela lagun proximoa, orrenbestez guardatzen ditu amar Mandamentu Santu guziak.

G: Esan egiztatzu Eleiza Ama Santuak ifeni zirauzkun Mandamentuak?

E: Eleiza Ama Santuaren Mandamentuak dirade bost, &c.

KAP. IV.

DOKTRINA KRISTIANAREN LAUGARREN PARTEA

§. VII.

Irakasten zaio Kristaubari zer rezebitu bear deban.

G: Zer rezebitu bear degu animako salbazioa alkanzatzeko?

E: Sakramentu santuak bear ditugu rezebitu.

G: Esan egitzu Sakramentuak, bada gutxie-naz jakin bear dituzu rezebitzera obligaturik zauden aek.

E: Jesu-Kristok berak instituiturik, eta eginik, bere Eleizan eutzi zirauzkun Sakramentu santuak, dirade zazpi, &c.

G: Zertako Jesu-Kristok instituitu zigun Baptismoa, edo Baptisterioa?

E: Pekatu orijinala kentzeko, eta baptizatzen dan argan edirotzen dan beste edozeinereko pekatu barkatzeko ere bai.

G: Zer da pekatu orijinala?

E: Da geure Aita Adanengandik heredatu genduan pekatua, zeñarekin jaiotzen geraden guztiok mundura.

G: Zer miseriatan arkitzen da, pekatu orijinalan konzebiturik, mundura jaiotzen dan guzia?

E: Arkitzen da pekatari eginik, eta demonioaren esklabitudean, Jaungoikoaren graziarik bage, aren Majestadearekin etsaitasun andian, eta gloriarako deretxorik batere bage, infernura erorteko estaduan.

G: Beraz Sakramentu Baptisteriokoa da miseria orien guztien remedioa?

E: Bai jauna, zerren Sakramentu orrek ematen dio, edo komunikatzen dio animari leenengo grazia, zeñarekin barkatzen zaion kulpak orijinala: ateratzen deu denonioaren esklabitudetik, eta infernuko bidetik Jaungoikoaren adiskidetasun andira, egiten deu Jaungoikoaren seme adoptibo, Eleiza Ama santuaren seme, eta mienbro, eta gloriaren herederoa.

G: Konfirmazioko Sakramentuak zer ondasun komunikatzen dirautza, disposizio onarekin rezebitzen debanari?

E: Ematen dio graziabat, korroboratzen, eta esfortzatzen debana Fedean, eta fuerza, edo indar andiak ere bai, resistitzeko Fedearen kontrako tentazio guziai, eta bere etsaiari.

G: Zer disposizio bear da Sakramentu auzarebitzeko?

E: Jaungoikoaren grazian arkitzea, eta eraman siniste firmea Sakramentu orrek debana esan degun birtutea.

G: Sakramentu Konfesiokoak, zeñari deritzan Penitenziako Sakramentua, zer ondasun ematen dirautza rezebitzen debanari disposizio onarekin?

E: Barkatzen dirautza bere pekatuak, biurtzen deu graziako bizitzara baldin leen galdu bazeban pekatu eginaz; eta baldin galdu ez bazeban grazia, ematen dio graziaren aumetua.

G: Zer dispoziorekin, eta zer dilijenzia eginik joan bear deu Kristaubak ondo konfesatzeko bere kulpak, eta pekatuak, eta rezebitzeko Sakramentu orren ondasunak?

E: 1. Leenena, bear deu konzienziaren examina egin espazio; eta kuidadu andiarekin.

2. Bigarrena, bear deu damu izan, eta eduki sentimentua, edo urrikimentua, zerren ofenditu, eta injuriatu deban Jaungoiko egiazkoa bera, izanik ain ona, eta ain amablea: edo gutxienaz, bear deu Jaungoikoa ofenditu deban guziaz damu izan, zerren galdu deban pekatu eginaz aren Majestadearen grazia, eta adiskidetasuna; edo zerren kastigaturik eutzi daiketan Jaungoikoak, bere graziatik, eta gloriako deretxo guzitik apartaturik, eta infernuetara betiko kondenaturik; edo gutxien gutxienaz, bear deu damu, eta igui izan pekatua, zerren pekatariak bezela itxeden daiketan Jaungoikoaren eskutik eskarmentu andiren bat edolaere tenporala, au da, edo purgatorio andi bat, edo mundu onetan trabaju, ta miseria gogorren bat, edo onelako beste eskarmenturen bat; edo beste motiboz urrikitzeko, bear deu edolaere damu izan, eta aborrezitu pekatua, zerren dan gauza torpea, eta itxusia, izanik Jaungoikoaren Legeak agintzen debanaren kontrako gauzea.

3. Irugarrena, damutasun orrekin batera bear deu egin, eta iduki propositu firmea, edo artu bere biotzean gogo bat guziz sendoa, ez egiteko

bein ere geiago pekatu bizi dan arte guzian, Jaungoikoaren itxedeten deban faborea, ta grazia lagun debela.

4. Laugarrena, bear ditu humiltasun andiarekin, eta modestia guziarekin konfesatu bere pekatu guztiak, batere ezkutatu bage, ez lotsaz, ez bildurraz, eta ez maliziaz, Konfesoreak ematen dion penitentzia kunplitzeko animo osoarekin, prokuratzen debala egitea Akto Fedekoa, Esperantzakoa, eta Karidadekoa, bein edolaere.

G: Zer da bada Konzienziaren examina egitea?

E: Da bakoitzak bere pensamentuaz, itzaz, obraz, eta nai izan zeban deskuidoaz Jaungoikoaren kontra eginik daduzkan kulpak, ta pekatuak, dilijentzia, eta kuidadu andiarekin memoriara, edo gogora guztiak albait ekartzen jarduntzea, edo prokuratzea beregan danaz, eta alegin justua, bere pekatu guziez oroitzea.

G: Nundik ezagutuko deude zertan, eta nola pekatu egin deban Jaungoikoaren kontra?

E: Jaungoikoaren Legeko amar Mandamentetatik, Eleiza Ama santuaren bost Mandamentetatik, eta Kristaubak berak deban estadia-

ren, eta ofizio, eta karguaren obligazio aetatik, orietan guzietan bat banaka konsiderazio andia- rekin pensatuaz zertan faltadu ote deban bere nai izanaz, eta kulpaz, zenbat modutara, zer zir- kunstanziarekin, eta zenbat bider, baldin oroitu al baderi, eta ezin kontuan jauzi bada, ala peka- tu dudazkoak, nola ziertoak zenbat diraden pekatuaren mota bakoitzean eginak; bear deu prudenziaz, eta diskrezioaz baliatzen dala, juizio egin zenbat ote diratean gutxi, edo asko.

G: Asko dan adina erantzun dezu, kristauba; bañan zure probetxurik andienerako, explikatu- ko dizut gero, eta irakatsiko dizut distinkzio, eta klarezia geiagorekin, nola konzienzia examinatu bear deban Kristaubak, Konfesio jeneral bat, eta naiz partikular bat ongi egiteko.

Esan egidazu orain: Sakramentu Eukaristia- koak (zeñari deritzan Altarakoa, edo Komunio- koa) zer ondasun komunikatzen, edo ematen dirautza, disposizio onarekin rezibitzen deban Animari?

E: Ematen dio graziaren augmentua, zeñare- kin gelditzen da kristauba Kristorekin uniturik ain modu marabillosoan, nola gure mingaňak ezin

explikatu leikean, eutzitzen debala aren Majestadeak berekin gauza bat bera eginik. Eta ematen ere dio sokorru andi bat, konfortatzen, eta guztiz esforzatzan debana resistitzeko bere pasioai, apetitu gaiztoai, eta bizio guziaz, erori eztidin kulparen miserian.

G: Zer disposizioekin, eta prebenzioarekin arkitu bear da Kristauba Sakramentu Eukaristia-koa dignamente rezebitzeko?

E: Egon bear deu barau naturalean, au da, gabaren erditikan asi, eta komulgatu artean sustenturik batere artu bage, ez ogirik, ez urik, eta ez beste edozeinereko jateko, edo edaateko gauzarik dan gutxienik ere. Onez ostean, bear deu egon al dagien guziaz ondo konfesaturik, pekatu mortaleko rezelorik, dudarik, edo eskripulorik batere bage; au da, bere iritzirako Jaungoikoaren miseriakordia mediante, estadu graziazkoan arkitzea. Eta iduki ere bear deu siniste firmea zer rezebitzera dijoan Eukaristiako Sakramentuan; eta bear deu rezebitu al deban ferborerik, deboziorik, humildade, ta rebenziarik andienarekin. Eta geroenean, eman graziak, eta

alabantzak aren Majestadeari, zerren egin dion ain benefizio, ta fabore andia.

G: Extrema Unzioko Sakramentuak zer ondatsun komunikatzen, edo ematen dirautza, disposizio onarekin rezebitzen deban enfermo, edo heri dagoenari?

E: Ematen dio grazia bat, zeñak garbitzen dion anima kulpa, ta pekatuak eutzi zigoen mantxa guzietatik barkatzen ere dirautza pekatu benialak, eta ezagutzen ez dituan, edo oroitzen eztzaizkan pekatu mortal, ezkutuan arki litezkean aek guziak ere bai, baldin badauka eginik propositu firmea, oroitzen zaizkan tenporan konfesatzeko guziak, bear dan urrikimentu, edo damutasunarekin: eta ematen ere dirautza indar andiak resistitzeko demonioaren tentazio guziai, eta eutzitzeko etsaia bentzuturik eriotzako trantzean; eta onez gañera eutzitzen deu Kristauba Jaungoikoaren miseriakordia andi aren esperantzaz seguraturik, eta gorderik: eta baldin bere animaren salbaziorako konbeni bazaio, ematen ere dio korputzeko osasuna.

G: Zer disposizio bear da Sakramentu au rezebitzeko?

E: Eriotzako señalearkin arkitzen dan heriak egon bear deu Jaungoikoaren grazian, eta reze-bitu Fede andiarekin, sinisten debala, Sakramentu orrek debana birtutea, eta efikazia, edo indarra, bere ondasun aek guziak komunikatzeko, edo emateko Kristaubari; onetarako, humilda-dearekin eskatzen debala, administratu dakion, edo eman dakion bere korde onean, ezagueran, edo zentzu osoan dagoala albaitere: eta orrez gañera, bear deu eduki (al dagian guziaz) bere kulpa, ta pekatuen damutasuna, eta urrikimentua; propositu firmearekin gelditzen dala (Jaungoikoak lekurik ematen badio) bear deban disposizioarekin konfesatzeko, leen ezagutu bagez, edo memoriatik, ezkutatu zitzaizkan pekatu andietatik, batere ezagutzera datorren tenporan, edo oroitzen danean eta onenbestez barkatzen zaiozka guziak Sakramentu orren birtutez.

G:. Zer ondasun ematen ditu Ordenako Sakramentuak?

E:. Ematen die Ordenatuai, euren ofizioa ondo egiteko grazia.

G: Matrimonioko Sakramentuak, zer ondasun ematen die, disposizio onarekin rezebitzen debean persona aiei?

E: Ematen die grazia bat, zeñak eutzitzen dituan ezkonduak alkarrekin karidadezko, edo amoriozko lazoaz esturik, eta uniturik: eta ematen ere die indarrak, Matrimonioko karga andiak eroateko: eta onez ostean ematen die auxilioak, eta argitasun andiak, semeak ondo azitzeko Jaungoikoaren bildurtasun santuan, jenero humanoaren konserbaziorako, Eleiza santuaren propagaziorako, au da, Fede santuaren amenturako; eta alkarri leialtasuna gordetzeko ondatsuna ere ematen die.

G: Zer disposizio bear da Sakramentu auzerebitzeko?

E: Leenena, Jaungoikoaren grazian arkitzea: bigarrena, Doktrina ondo jakitea, irakasteko euren semeai Jaungoikoak ematen dien tenporan: eta irugarrena, ez idukitzea batere inpedienturik, Matrimonioko Sakramentua desegindu daiketik, edo Matrimonioko deretxoa, exerzizioa, eta zorra enbarazatu, edo eragotzi daiketik.

G: Zein inpedimentu da, ezkutatua izanik, gutxiena ezagutua oi dana; eta razoe onegatik egin oi diradena asko bider Matrimonioak, ezer ere balio eztebeanak egin ez balirade baño geiago?

E: Erantzuten det, jauna, klarezia geiagorako exenplo onekin: Deseatzen debe gizon libre batekin, andre, edo emakume libre batek Matrimonio santua egitea, eta rezebitzea: eta orrela alkarrekin ezkonduzik gelditzea au onela dala ere: baldin gizon orrek parterik artu izan bazeban emaztetzat rezibitu nai deban emakume orren aideren batekin, leenengo, edo bigarren belaunean, edo graduan aidetasuna debanarekin; edo beste aldera, baldin emakumeak egin izan bazeban beste ainbeste, senartzat rezebitu nai deban gizonaren aideren batekin, esan degun belaun, edo gradu oen bietatik batean aidetasuna debanarekin; ezin ezkondu ditezke dispensa bage gizon ura, eta emakume ura alkarrekin, zerren ediroten dan, pekatu ura zirkuntanzia artakoa egin zeban parte, edo persona, inpedimentuarekin, edo enbarazoarekin; eta baldin inpedimentu, edo enbarazo orrekin ezkon-

tzen badirade (naiz arkitzen ez dalarik ere inpedimentu ori aen bietatik batean baizen) ez debe egiten Matrimoniorik, eta ala ez dirade gelditzen ezkondurik; eta onegatikan ezin izan ditezke ezkonduak bezela alkarrekin. Au da, bada, inpedimentua askori ezkututzen zaiona, eta zeñaren kausas askok egin oi dituen ezer balio ez debean Matrimonioak.

Bañan, baldin Matrimonio santuko, inpedimenturik, edo enbarazurik batere bage ondu kontrahidu ta efektuadu azkero, suzeditu bazan partea artzea (senarrak, edo emazteak) korputzaz batak bestearen aidearekin, esan degun belaun, edo gradu aen bietatik batean aidetasuna debanarekin; desegintzen ez bada ere Matrimonioa, edolaere pekatu moeta ura zirkunstantzia artakoa egin zeban persona gelditzen da inpedimentuarekin ezin eskatu deikeon moduan bere konsorteari, edo konpañiari Matrimonioko zorra, zerren eskatzeko deretxoa galdu zeban pekatu ura alakoa egin zeban instante artatik bertatik: eta ala, Matrimonioko zorra eskatzeko deretxoa izan dagian, bear deu konsegitu bere inpedimentu orren dispensazioa.

G: Zazpi Sakramentu oei nork eman ote zien euren birtutea?

E: Jesu Kristo geure Jaunak komunikatu zien birtute ori bere Pasio santuko merezimentuakin, zeñak nai izan zituan eutzi depositaturik zazpi Sakramentu oetan geure remediorako.

Oneraño da Kristabak jakin bear deban Doktrina. Bañan memoriaz au guzia ezin ikasi debean aentzat, asko da jakitea ainbeste, ta alako moduan, nola Kartilla onen leenengo ojan adbertiturik dagoan.

§. VIII.

**Obliogaziorikan ez izan arren
Kristaubak pekatu mortalaren penan
jakitera emen segitzen diraden Orazio oek:
ala dalarikan ere,
asko konbeniko litzaio jakitea:
orreatikan, bada dihoaz emen eskribiturik.**

*Zazpi Pekatu kapitalak, zeñai deitzen
zaizten pekatu mortalak, dirade oek.*

1. Soberbia.

2. Abarizia.
3. Lujuria.
4. Ira, edo bengatzeko arrabia.
5. Gula.
6. Inbidia, edo inoren onaz gaitz artzea.
7. Nagitasuna.

*Zazpi bizio oen kontra
arkitzen dirade zazpi Birtute.*

1. Soberbiaren kontra, Humildadea.
2. Abariziaren kontra, Liberaltasuna.
3. Lujuriaren kontra, Kastidadea.
4. Bengatzeko deseo, edo arrabiaren kontra, Pazienza.

5. Gularen kontra, Abstinenzia, edo konbeni
dan baño geiago ez jatea, eta ez edatea.

6. Inbidiaren kontra, Karidadea.

7. Nagitasunaren kontra, Dilijentzia, edo obra
onak egiterako kuidadua paratzea.

Animaren etsaiak dirade iru.

1. Demonioa.
2. Mundua.
3. Aragia.

Animaren Potenziak dirade iru.

1. Memoria.
2. Entendimentua.
3. Borondatea.

Korputzaren Sentiduak dirade bost.

1. Ekustea.
2. Aditzea.
3. Usaia sentitzea.
4. Gustua artutzea.
5. Eskuaz ikuitzea.

Obra miserikordiazkoak dirade amalau.

*Oetatik leeengo zazpirak dirade Korporalak:
beste zazpirak dirade Espiritualak.*

Zazpi Espiritualak dirade oek.

1. Leenengo obra miserikordiazkoa da, eri, edo gajo arkitzen diranak bisitatzea, edo ekustera juatea.
2. Bigarrena, gosearen trabajuarekin dagoa-nari, jatera ematea.

3. Irugarrena, egarriaren trabajuan arkitzen danari, edatera ematea.
4. Laugarrena, kautibu dagoana reskatatzea.
5. Bostgarrena, korputza zertzaz estali eztaben, pobreaki soñean egitea, edo janzia ematea.
6. Seigarrena, peregrinazioan, edo romerian dijeanari ostatu ematea, edo etxean rezebimentu ona egitea.
7. Zazpigarrena, illak entbrratzea.

Zazpi Espiritualak dirade oek.

1. Leenengo obra miserikordiazkoa, eta espirituala da jakiundearen nezesidadean arkitzen danari irakastea.
2. Bigarrena, premian dagoenari konseju ona ematea.
3. Irugarrena, salbazioko bidetik apartatzen danari, eta erraturik dijoanari reprensio ona ematea, edo korrejitzea.
4. Laugarrena, injuriak barkatzea.
5. Bostgarrena, triste dagoana konsolatzea.
6. Seigarrena, geuren proximoaren flakeza, ta miseriak sufritzea.

7. Zazpigarrena, biziakgatik, eta illakgatik, Jaungoikoari erregu egitea.

Birtute Teologalak dirade iru.

1. Fedea.
2. Esperantza.
3. Karidadea.

Birtute Kardinalak dirade lau.

1. Prudentzia.
2. Justizia.
3. Fortalezeta.
4. Tenplantzea.

Espiritu Santuaren Doeak dirade zazpi.

1. Leenengoa da, Sabiduriako Doea.
2. Bigarrena, Entendimentuko Doea.
3. Irugarrena, konseju onaz gobernatzeko Doea.
4. Laugarrena, Fortalezako Doea.
5. Bostgarrena, bakoitzak bere faltaak ezagutzeko Doea.
6. Seigarrena, Piedadeko Doea.

7. Zazpigarrena, Karidadetik jaiotzen dan Beldurtasun Santuko Dorea.

Espiritu-Santuaren Frutuak dirade amabi.

1. Karidadea.

2. Konsuelo, edo Gozu Espirituala.

3. Pakea Espiritukoa.

4. Pazienza.

5. Longanimidadea, zeñak deklaratzeko deban animoaren jenerosidadea, eta anditasuna ondasun etorkizun eterno aen itxedeten egotean.

6. Ondasuna, edo on izatea.

7. Benignidadea, zeñak egiten deban Jaungoikoaren siera bere itzegitean afable, eta bere kondizioan suabe.

8. Mansedunbrea.

9. Proximoarekiko Fedea, edo fidelidadea.

10. Modestia.

11. Kontinentzia.

12. Kastidadea.

Bienabenturantzak dirade zortzi.

1. Bienabenturaduak pobrezea eskojitzen debeanak, zerren aena dan Zeruetako Reinua.

2. Bienabenturaduak mansoak, zerren aek diraden Zeruaren herederoak.
3. Bienabenturaduak euren pekatuakgatik negarrez daudenak, zerren eurak izango dira konsolatuak.
4. Bienabenturaduak ansia andiarekin deseatzten debeanak birtute, eta santidade guzia, zerren euren deseo santua izango dan glorian guziz kontentadua.
5. Bienabenturaduak miserikordiosoak, zerren eurak alkantzatuko debean miserikordia.
6. Bienabenturaduak biotz garbia debeanak, zerren eurak ekusiko debean Jaungoikoa.
7. Bienabenturaduak pakeosoak, zerren deituak izango diraden Jaungoikoaren seme santuak.
8. Bienabenturaduak dirade Kristoren amorioagatik mundu onetan padezitzen dituztenak sufrimentuarekin persekuzioak, zerren oentzat dago zeruan premio abundosoa.

KAP. V.

IRAKASTEN ZAIO

KRISTAUBARI,

**nola examinatu bear deban bere kontzientzia,
eta nola preparatu bear deban
Konfesio partikulara, edo bere bizi guziko
Konfesio jenerala ondo egiteko.**

*Konfesio onaren azierturako
konbeni diran adbertimentuak.*

1. Negozio grabe, ta inportantzia andiko batean ifeni bear dan, eta paratu oi den kuida-dua, tenpora, edo espazioa, eta meditazio, edo konsiderazio on ura bera, agintzen deu gure Jaungoikoak ifeni dagigula (bakoitzak degun kapazidadeaz, edo zentzuaz konforme) geuren kontzientziako examina, eta aberiguazioa egi-tean bertan, konfesatu gaitean baño leenago, zerren au dan gure inportantziarik andieneko negozioa, zeñean dijoan eternidade bateko geure salbazioa.

2. Konfesioak baliatzeko (edo bear dan beze-lakoa izan didin Konfesioa) bear ditu penitenteak

klareziarekin, eta Konfesoreari engañiorik egin bage, esan bere kulpak, eta pekatu guziak, zenbat, eta zer moetakoak egin izan zituan, eta guzien dolore, edo damutasunarekin, eta propo-situ firmearekin, bere bizi guzian beñ ere ez egi-teko pekatuak geiago. Bañan au obeto erakutsi-ko degu emendik aurrera.

3. Aizkenengo Konfesio azkero egin diraden pekatuak konfesatzeari, deritza *Konfesio parti-kulara*; eta batek bere bizi guztian, edo urte askoan (zeñatan egin dituan konfesioren batzuek) kometidu dituan pekatuak osotoro kon-fesatzeari, deritza *Konfesio Jenerala*.

4. Konfesio Jenerala egitera daude nezesida-deaz obligaturik persona aek guziak, zeñeak leen egin izan debean konfesio gaiztoren bat, edota zerren konfesio artan esan zebean gezurra gauza grabea, edo andian: edo zerren maliziaz, lotsaz, edo bildurraz eutzi zebean pekatu morta-len bat konfesatu bage: edo zerren konfesatzera juan baño leenago egin eitzebean (euren omi-sioz, edo deskuido geiegiz) kontzientziaren exa-mina sufizientea, edo zerren konfesatu ziraden bear dan damutasun, eta arrepentimenturik

bage, edo propositu egiazkoa, eta firmea bage alde egiteko, ta apartatzeko pekatuagandik, eta pekatuaren bidetik, eta okasiotik: askotan suzeditu oi dan bezela, konfesatzen danean bat, beste batekin pekatu mortaleko estadu miserablean arkitzen dan tenporan, edo pekatu egiterako okasiora sarritan biurtzen danean, edo bakoitzari zor dion hazienda, interesa, honra, edo fama restituidu, edo biurtu diozakealarik ere, biurtzen ez dionean, edo nai eztabenean restituidu. Defekto, edo falta oetatikan edozein da bastante konfesioa izateko gaitza, eta sakrilega. Eta beste defektoren batzuek arkitzen badira ere, zeñan kausaz suzeditu leitean konfesioak ez baliatzea, ez ditugu aek emen deskubritzen razoe bigatikan: Leenena, inor eskrupuluetan ez sartzeagatik. Eta bigarrena, zerren gutxitan bai-zen ez diraden ofrezitzen defekto moeta aek, zeñaz Konfesore doktoak, eta prudenteak artuko dio kontu penitenteari diskrezioarekin, nezesida-dea arkitzen debanean. Ala bada, deklaratu ditugun falta, edo defekto oek izanik sarri ofrezitzen diradenak, oek dirade Kristaubari geiena adber-

tidu bear zaizkanak, egin eztagian konfesio sakrilegorik, eta ezer balio eztabenik.

5. Konfesio Jenerala egitera obligazioan arkitzen dan personak, bear deu egin leenena gaizki konfesatu zanetik asi, eta aizkeneraño egin dituan konfesio sakrilega aek guztiak deklaratuaz.

6. Inoiz gaizki konfesaturik oroitzen ez dan persona, edo razoe bastantearekin dudarik, eta rezelarik ez dadukana, ez dago obligaturik Konfesio Jenerala egitera: badarikan ere, inoiz egiten baldin badeu Konfesio Jenerala bere pekatu pasatuen damuarekin, eta arrepimentu egiazkoarekin bere konfusio geiagorako, eta pekataritasunaren ezaguerarik andienerako; segituko zaio guziz probetxu andia, bada orrenbestez aseguraturiko deu geiago, eta geiago bere animako salbazioa, eta aurrera bizi dan tenpora guztian ediroko da bere espirituko pakearekin, eta enfermedadeko tenporan, eta eriotzako horduan ediroko da konsolaturik, Jaungoikoaren miserikordiaren esperantza obeto aseguraturik.

7. Aziertua konsegitzeko gauza inportanziazko onetan, konbeni izango zaio Kristaubari bere

bakartasunera retiraturik orazio egitea, eta exerzizio santu orretan egunen batzuek, edo gauren batzuek enpleatzea, aldian bein edolarikan ordu bat, edo orduerdi bat egunean, edo gaubean bere aldera artuaz, eskatzen diagola Jaungoikoari al deban humildaderik andienaz, Fedeaz, eta esperantza firmeaz, bere sokorru dibinoak, eta hasistenziarik andienak, aen medioz ekarri dituan memoriara bere kulpa ta pekatuen numeroa, eta zirkunstantzia guziak, batere ezkutadurik gelditu ez dagikoan moduan: entendimenturako argia, aren medioz ezagutu dagian bere pekatuen grabedadea edo anditasuna; eta itxusitasuna: eta borondaterako damua, eta urrikimentua, zerren kometidu, edo egin izan dituan aren Majestade dibinoaren kontra; eta doe andi oek alkantzatzeko, prokuratuko deu biotz osotik Akto kontrizioko asko egitea.

8. Modu onetan orazioan exerzitadurik, bear ditu Kristaubak dilijenzia, eta kuidadu prudente batekin examinatu bere bizi guziko tenporan egin dituan pekatuak, ala pensamentuaz, ala itzaz, ala obratuaz, nola bere omisioz, edo deskuido: eta examina prudante orretan oroitu

zaizkan pekatu aek baño geiago izanagatikan ere, ez deu zer batere aflijitu; zerren, haztu zaizkan pekatu guziak, eta memoriara ezin ekarri izan dituanak examina artan, pekaturik mortalenak edo andienak balira ere, guziak barkatuko zaizka konfesioko Sakramentu aren medioz, eta birtutez, eta solo geldituko zaio obligazioa memoriara etorten zaizkanean konfesatzekoa.

9. Konzientziaren examinan konfunditzen diraden personak, eta ezin aberiguatu debean aek euron pekatuen numero ziertoa, edo kontu ziertoa ezin ajustadu debeanak zenbat pekatu egin izan debean Mandamentu bakoitzaren kontra, esan beze zenbat tenpora egon diraden pekatuan, edo kostunbre gaiztoan, eta ajustadu beze zenbat pekatu izan al ziratean gutxi asko egunoro, asteoro, edo illoro, bata bestearekin konputua eginaz. Eta baldin dilijenzia au ifenirikan ere, Kristaubak ezin ajustadu badeu zenbat pekatu gutxi asko egin dituan: esan beza zer kostunbre izan deban pekatu moeta bakoitzean; edota dadukan dudaz konforme akusatu bidi, esaten debala, ezen ez dakiala determinatzen bere pekatuen numeroa, zerren deritzon, edo

juzgatzen deban diradela bein asko geiago, eta beste bein asko gutxiago. Modu onetan, bada, konfesatuaz, kunplitzen deu penitenteak ediro-tzen danean esan degun dudan, eta konfusioan; zerren Konfesioko Mandamentuak ez deu geia-gotara bat obligatzen, baizikan esatera bere kontzientzian sentitzen debana sentitzen deban bezela. Argatikan, bada, ez deu penitenteak zer aflijitu memoriara ezin ekarri debanean bere pekatuen numero ziertoa, eta ezin determinatu debanean ere zenbat diraden gutxi asko; zerren ez deu inork egiten konfesio gaiztorik memoria gutxi, edo entendimentu gutxi izanaz, baizikan borondate gaiztoa izanaz.

10. Errazago oroitzeko bat bere bizi guzian egin dituan pekatuaz, asiko da pensatzen zazpi urte zituanetik amabi urte zituaneraño, eta amabi urte aetatikan ogei urte zituaneraño, eta ogei urte aetatikan ogei ta amar urte zituenera-ño (edo tenpora orretan artu bazeban estaduri-kan, ordenatu zaneraño, edo Matrimonioko Sakramentua rezebitu zebaneraño) eta modu onetan prosegituko deu aurrera, memoria egiten debela zer erritan, zer etxetan, zer bidetan ibili

dan, eta bizi izan dan tenpora orretan, zer ofizio, eta zer enpleo izan deban, zer personarekin tratu, eta komunikazioa izan deban, eta finalmente zer inklinazioak, eta biziok arrastradu deban, edo benzutu geiena bere tenpora orretan guzian. Edade andiagotikan asi nai debanak konfesio jenerala egin beza esan degun moduan tenpora orretatikan asi, eta urrena konfesatu nai debaneraño.

11. Tenpora luzeagoan konfesatu bagarik dagoanak, eta egin debanak bizitza gaiztoagoa nezesitatzen deu tenpora geiago bere kontzientzia examinatzeko, tenpora laburragoan, eta pekatu gutxiago eginikan konfesatu bage arkitzen danak baño. Billatu beza Konfessore dokto bat, eta onek bere galdetzeko moduz supliduko dio asko konzientziako examina.

12. Dudako pekatuak, au da, ezin oroitu danean zierto egin ote zituan, edo konsentidu ote zituan, konfesatu bear ditu dudakoak bezela.

13. Instrukzio onetan mortaltzat ifenten diraden pekatuak, Konfessore doktoak adbertiduko deu, eta esango deu, zirkunstanziaren batean ez badirade izaten mortalak.

14. Konzienzia examinatzen dijoanak (baldin badaki eskribitzen) ifeni beza borradore batean Mandamentuen ordenaz konforme pekatu bakoitza edo okasioa, oroiteen dijoakan bezela, eta gero juntadu bitza, abrebiatzeko, Mandamentu bakoitzean egin dituan pekatu aek guziak, moeta batekoak aldebat, eta beste moetakoak beste aldera, kontadu bitza moeta bakoitzean zenbat pekatu diraden, eta orrekin esango ditu guziak beingoan. Au aditzera ematen det obeto kaso onetan: Suponitu dagigun, batek egin zebala pekatu kastidadearen kontra lau aldiaz emakume libre batekin, eta beste amar aldiaz beste emakume libre batekin; pekatu oek beingoan konfesatzeko, juntatu bitza alkargana guziak, eta esan beza modu onetan: Akuaatzen naiz seigarren Mandamentuan, pekatu egin dedala amala bider emakume libreak, edo solterak diranakin. Modu onetara, bada, konfesatuko ditu itz gutxian beste edozein pekatu moeta Mandamentu bakoitzean.

15. Ez dirade konfesatu bear birtuteak; baizikan pekatuak; ez trabajuak, eta deskomodidadeak, baizikan pekatuak bakarrik; ez kontuak,

eta historiak pekatua egiterakotz pasatu ziranak, solo pekatuk konfesatu bear dira; eta oek ez inorenak, edo besterenak, baizikan penitente bakoitzak bear ditu konfesatu bere pekatuak, berak egin dituanak, ez senarrarenak, semearenak, edo auzoan bizi diranak egin zituenak. Geiago: bear ditu Kristaubak konfesatu bere pekatuak bere kontra; ez deu eskusatu bear esanaz: *Jaungoikoak eman ziran naturalak eragin dit pekatu*; zerren modu orretan konfesatzea, da ainbeste nola bere kulpak nai izatea Jaungoikoari egozteak, bear deu, bada, bere kulpak konfesatu bere kontra; ezta pekatu egiterako okasioa, edo motiboa eman zionaren kontra ere, baizikan bere kontra solamente. Ez deu deskubridu, edo deklaratu bear nor dan pekatu egitean lagundu zion persona. Ez ditu konfesatu bear benialtzat, pekatu mortaltzat egin dituanak; baizikan pekatu mortalak, mortalak bezela, eta pekatu benialak (konfesatu nai baditu) konfesa bitza benialak bezela. Ez deu ezer konfesatzen, esaten debanak: *Por si akaso egin baneban onelako, edo orrelako pekatu*: zerren, edo daduka fundamenturik juizio egiteko, edo dudatzeko pekatu egin zebala, edo ez

daduka fundamentarik? Fundamentua baldin badaduka, ez da bastante jeneralidade orrekin modu orretan konfesatzea: zerren bear deu esan, edo egin zebala pekatu, edo dudan arkitzen dala; baldin ez badeu, dudatzeko ere, fundamenturik, zertako da esatea: *Por si akaso?* Ez deu, bada, kondizional onekin, eta ez beste one-lakorekin kristaubak konfesatu bear, zerren ez dan ori konfesatzeko modu ona. Konfesatzeko modurik onena da bakoitzak klaro esatea bere pekatuak rodeo bage, ziertoak diranak ziertoak bezela, eta dudakoak diranak dudakoak bezela.

16. Konfesatu bear dirade pekatuari espezie, edo moeta, beste espezie, edo moeta diferente-ra mudaturugiten digoen zirkunstantzia aek guziak. Esan nai det: zirkunstantzia aek dirade konfesatu bear diranak, zeñak mediante, pasatzen dan pekatua beste Mandamenturen baten kontra, beste birtuteren baten kontra, edo proximoak deban beste deretxoren baten kontra izatera. Explikatzen naiz klarezia geiagorako exemplo onekin: Suponitu dagigun, personaren batek egin debala juramentu bat gezurrarekin proximoaren fama onaren kontra. Kaso onetan jura-

mentu au ez solamente da Jaungoikoaren Legeko bigarren Mandamentu Santuaren kontrako pekatua, bañan baita zortzigarren Mandamentu Santuaren kontrako pekatua ere dator izatera; eta ala, ez solamente da juramentu gaizto ura Relijioko birtutearen kontrako pekatua, bañan baita orrez ostean ere dator izatera justiziako birtutearen, eta proximoak bere famagana dadukan deretxoaren kontrako pekatua. Razoe orregatik, bada, dago obligaturik penitentea zirkunstantzia ori, eta onelako zirkunstantzia moeta guziak konfesatzera edozeinereko beste pekatu moetan arkitzen diranak. Emendik ezagutu daike Kristaubak, ezein, bere konzientzia examinatzen debanean, ez solamente bear debala prokuratu, dilijenzia prudente batekin, zenbat pekatu egin dituan Mandamentu bakoitzean, baizikan, orrez ostean ere, bear debala prokuratu aberiguatzea pekatu bakoitzean, edirotzen ote dau esan degun alako beste zirkunstanziarik: bada, ez solamente bear dirade osotoro konfesatu pentsamentuz, itzaz, obraz, eta omisioaz, edo deskuido kulpableaz egin diran pekatuak, bañan baita pekatu bakoitzari bere espezie edo moeta beste

moeta diferentera mudaeragiten dieten zirkunstantzia aek guziak ere, esan degun bezela. Eta ala, zirkunstantzia oez kasorik egiten ez debanak, eta aberiguatu nai ez dituanaz bere konzienziaren examinan, gauza ezagutua da nai ez debana egin konfesioa ona, baizikan sakrilega.

17. Beste zirkunstantzia aek guziak, pekatuari bere espezie edo moeta mudatzen ez digoenak, baizikan pekatua bere espezie edo moetan bertan solamente agrabatzen, anditzen, edo azitzen debean aek konfesatzeko obligaziorikan eztago, absolutamente, edo jeneralidadean itzegiten degula. Opinio au irakasten deu San Buenabenturak; sententzia onetakoa da Santo Tomas; eta au berau segitzen debe San Antoninok, Eskotok, Durandok, eta beste Doktore askok, eta da ia opinio komuna oraingo Dokto-rean artean. Bañan au onela izanagatikan ere, beti izango da probetxu andikoa penitentearenzat zirkunstantzia oek konfesatzea.

Esan degu, ezen, absolutamente, edo jeneralidadean itzegiten dala, eztagoala zirkunstantzia agrabanteak (au da) pekatua bere moetan bertan grabeago, andiago, edo bere mortaldasuna

aziago egiten debean zirkunstantzia aenik konfesatzeko obligaziorik; zerren, au egia izanikan ere, ediro litezke kasoren batzuek zeñetan arkitu liitean penitentea zirkunstantzia agrabanteak konfesatzeko obligazioan. Obligazio au, bada, gelditzen da arkitzen danean pekatoren bat zirkunstantzia agrabanteagatik reserbaturik dagoana Preladuaren jurisdiziora; edo zensuraren batez (au da eskomunioren batez) prohibiturik, edo debekaturik; edota Konfessore doktoak eta prudenteak itauntzen dituanean, aplikatzeko penitentzia konbeni dana, edo beste razoe justuren bategatik: onelako kaso guzietan, bada, diot, bearko dituala penitenteak deklaratu konfesion zirkunstantzia agrabanteak edo pekatua grabeago egiten debean zirkunstantzia aek; eta ala, kaso moeta oez kanpora (ondo bada ere zirkunstantzia agrabanteak konfesatzea) ez dago konfesatzeko obligaziorik, esan degun bezala ia.

18. Bakoitzak bere eskuan daduka konfesatzea, edo konfesatu bage eutzitzea pekatu benialak; zerren izanikan (Konzilio Tridentinoarekin supositurik daroagun bezela) Sakramentu penitenziakoaren materia boluntarioa pekatu

benialak, ez dago inok oek konfesatzera nezesidadez obligaturik. Eta ala: pekatu mortal bat, edo asko egin dituanak, eta aez gañera bada-
duzka ere pekatu benial asko eginik, benial aek ez konfesatuarren, ezteu egiten pekaturik, baldin konfesatzen baditu osotoro pekatu mortalak; zerren solamente pekatu mortalak dirade Sakramentu penitenziakoaren materia nezesaria, au da, prezisamente, edo nezesidadeko obligazioz konfesatu bear diranak; bañan pekatu benialak ez dirade obligazio onetakoak, baizikan borondatez konfesatu ditezkeanak, edo konfesatu bage libremente bakoizak eutzi ditzakeanak, pekaturik orregatikan ere egin bage; bañan beti ere da obe benialak konfesatzea.

19. Egia izanikan ere esan degun au guzia, suzeditu dite kasualidaderen batez Sakramentu penitenziakoaren materia nezesarioa pekatu benialak izatea, au da, prezisamente konfesatu bear diranak, eta ain moduz, nola eutziko balira konfesatu bage, izango lizatean konfesioa gaitza. Iru kasotan, bada, arki liite bat pekatu benialak konfesatzeko obligazio prezisoan. Leenena da, norbait dijeanean konfesatzera, eta ez deba-

noan beste pekatuik benialak baizen. Bigarrena, boto, edo juramentu eginik dadukanean batek pekatu benialak ere konfesatzeko. Irugarren kaso da, exkomunioz proximoarekiko tratu, eta konbersazio moeta guztik, eta ofizio dibinoetarako asistentziatik apartatutzat deklaraturik dagoanarekin itzegiten danean, edo tratatzen danean gauza tenporaletan, edo korputzari tokatzen zaizkan aetan; nola dan, konbersazioan, edo itzegite ordinarioan, naiz kortesian, naiz txanztan exkomulgaturik ala dagoanarekin tratatzea. Iru kaso oetan, bada, pekatu benial aek bear dirade obligazioz konfesatu. Oez kanpora (esan degun bezela) bakoitzaren borondatean dago konfesatzea edo ez konfesatzea pekatu benialak.

20. Pekatu dan gauzaren bat inork egin baldin bazeban pentsatu bage, edo ezagutu bage pekatu zanik; geroz ezagutu arren, edo ikasi arren gauza ura egitea pekatu dana, eztzeban gauza ura ala eginaz pekatuik egin: zerren adbertimenturik bage egiten dan gauzan, eta ignoranzia kulpa bagekoaz egiten danean, akzio ura gaitza izanagatikan ere, ez da pekatutzat

juzgatzen; eta ala, gero ondoren datorren adbertimentuak, eta ezaguerak edo notiziak ez debean obra, eta akzio pasatu zan ura, pekatu izatera biurtzen. Bañan bear da emen adbertidu, ezen, baldin bere borondatez, edo kulpaz eduki bazeban ignorantzia, eztzebala diskulpatu ignorantzia orrek kulpaz izatetik; eta ala, ignorantzia kulpable onekin egin izan bazeban obra gaitz ura, egin zeban pekatu.

21. Adbertitzen da esan degunaz gañera, ezen baldin inork egiten badeu gauzaren bat pekatu dalako ustean, edo iritzian, edo naiz dudan, eta rezeloan arkitzen dalarik, pekatu ote dan, edo ez ote dan gauza ura egitea: egiten debala pekatu, juizio orretan, edo duda eta rezelo orretan gauza ura egiteaz beraz, naiz gauza ura beraz pekatu ez bada ere.

22. Imajinazioak, eta pensamentuak guziz torpeak gogora etorri arren ere; naiz diradela Fedearen kontrakoak, naiz Santuen kontrakoak, edo beste edozeinereko materiaren baten kontrakoak: baldin borondateak ez baditu konsentitzen, eta nai izaten, ez dirade pekatu; zerren pekatu izateko imajinazio, eta pensamentu gaiz-

toak, oen malizia ezagutuaz gañetik, bear dirade izan konsentiduak, eta ala: ematen ez bazate konsentimenturik, aek gogora etorriagatikan ere, ez da egiten pekaturik.

23. Mandamentu bakoitzean egingo ditugun pregunta guziak adizen dirade pekatu mortalak gañean; eta ala, ez ditugu instruzio onetan ifentten pekatu benialan pregunta aek, zerren (leenago esan degun bezela) oek ez diraden konfesioko materia nezesarioa, baizikan boluntarioa, eta ez luzatzeagatik instruzio au.

24. Konfesio jenerala obligazio bage, eta bere debozioz egiten deban persona ark eutzi ditzake nai dituan edozeinereko pekatu konfesatu bage, naiz guziz grabeak, edo mortalak badira ere, baldin leenago bein ondo konfesaturik badaduzka. Eta orrez gañera konfesatu diite konbenienzia geiagorekin, obligazioz konfesio jenerala egiten deban persona baño; zerren debozioz egiten debanak, konfesatu ditzake, leenengo konfesatzen danean, Mandamentu baten kontra egin zituan pekatuak solamente: bigarrenko konfesioan konfesatu ditzake beste Mandamentu baten kontra egin zituanak; eta modu onetan

gutxibana, gutxibana, prosegidu daike konfesio askorekin konfesio jenerala egin arte guzian.

23. Konzientzia ondo examinatz gañera bear deu Kristaubak bere pekatu guzien damua izan, eta propositu firmea ere bai, bere bizi guztian aurrera pekatu edola ere mortalik batere ez egiteko bein ere geiago.

26. Pekatuen damu onek (zeñari beste moduz deitzen diogun pekatuen dolorea, urriki-mentua, edo arrepimentua) bear deu izan egiazkoa. Ez dago, bada, egiazko arrepimentua, edo dolorea, begietatik, negar malkoak ixurtean, edo aurpegia triste ifentean, edo eskuaz bularrak eritzean, edo *damu debala pekatu Jaungoikoaren kontra egina* solamente esatean, eta onelako beste demostrazio, kanpora deskubritzen diraden oetan batean ere, (egia bada ere onelako demostrazio oek jaiotzen dirana batzuetan damu egiazkoaren anditasunetik:) konsistitzen deu, bada, egiazko dolore, eta arrepimentu onek, egiaz, eta finjimentu bage, bakoitzak bere biotz osotik damua, eta sentimentua izatean zerren ofenditu deban Jaungoikoa bera-
ren Majestadea dan bezin ona, eta amablea iza-

nik, au da, izanik Jaun bat berez debana on izate bat infinitoa, eta eternoa: Jaun bat, bera danagatik beste bage merezi debana, beti ta beti amatur, serbitua, eta obedezitua gauza guzien gañean izatea. Motibo, eta razoe onegatik, bada, damu izateari pekatu egin, orri deritzo, eta damutasun moeta ori da *akto Kontriziokoa*. Edo beste modura, egiazko doloreak, eta arrepimentuak konsistitzen deu, batek pekatu egin deban guziaz damu izatean, edo pekatuagana odioa, edo aborrezimentua, au da, bere biotz osotik pekatuagana etsaitasun egiazkoa beregan konzebitzean eta ifentean, zerren pekatua mediante merezitzen dituan infernuko pena, ta tormentu fin gabeko aek guziak: edo zerren pekatu eginaz beraz gauldu izan deban Jaungoikoaren grazia, eta adiskidetasuna, eta orrenbestez Zeruko Gloria artara zedukan deretxoa; edota zerren dan pekatua (Fedez ezaguturik dadukan bezela) gauza torpea, eta itxusia. Motibo, edo razoe oetatik batetaz pekatua aborrezitzea, da pekatu egin danaren damu sobrenaturala, edo egiazkoa izatea; bada damu moeta au dijoa fundaturik razoe eta motibo sobrenaturale-

tan, au da, Fedean fundaturik dauden aetan, zeñan ezagutzen ditugun solamente Fedearen medioz, zeña dan birtute sobrenaturala; au da, naturalezaz gañekoa, eta Doe Dibinoa. Damutasun moeta oni deritzo, bada, eta da *atrizioa*, edo *akto atriziokoa*: eta damutasun au da bastante konfesio ona egiteko, baldin badaduka pekatariak damu orrekin batera propositu firmea, pekatu rik batere geiago ez egiteko bizi dan arte guzian. Badarikan ere, beti izango da razoe, eta gauzarik seguroena, akto amoriozkora, edo kontriziora esforzatzea aletin guziaz.

27. Damu onek, bada, egiazko kontrizioa, edo egiazko atrizioa izateko bear deu inkluitu intenzio firmea, edo propositu firmea konfesatzeko kulpak, ta pekatu guziak (edolaere mortalak) konzienziaren examina dilijentean aberigatu ziradenak, Konfesoreak ematen deban penitentzia rezebitzeko, eta kunplitzeko, eta geiago pekatu rik ez egiteko: zerren propositu firme au falta zaion damua, ezin izan diite egiazko kontrizioa, eta ez atriziokoa ere; argatikan, bada, uste arren pekatariak, konfesatu zanean basedukala bere pekatuen damua, eta arrepimentu

egiazkoa, gelditu zan engañatua, baldin iduki ez bazeban esan degun propositua. Propositu au da borondatearen resoluzio jeneroso, eta baliente bat, determinatzen debana, deskonfiaturik bere fuerza naturaletan, eta solo konfiaturik grazia dibinaren sokorru, eta asistencia aetan, ez biur-tzea geiago Jaungoikoa ofenditzera, motibo aek berakgatik, zeñakgatkan izan zeban damu aren Majestade Santisimoa ofenditua. Au da, bada, puntualmente kulpa, eta pekatuen damuak inkluitu bear deban propositua, damua egiazkoa izateko, eta konfesioa ona egiteko. Damurik onena, ta jenerosoena izanik (esan degun beze-la) kontrizioa deitzen dioguna, au formatu liite segitzen dan bezela.

AKTO KONTRIZIOKOA

Neure Jesu-Kristo, Jaungoiko eta Gizon egiazkoa, neure Kriadorea, eta Redenptorea: damu det guztiz, eta biotz osotik, zu ofenditua zu zera-dena izanik, Bondade infinita, eta ain amablea, eta zerren amatzen zaitudan gauza guzien

gañean, eta neure bizi guztia, eta anima baño ere geiago, argatik berargatik det guztiz damu zu ofenditu zaitudan guztiaz. Nik proponitzen det firmeza, eta resoluzio guziarekin geiago pekatu-rik ez egitea nere bizi guztian, eta apartatzea zure ofensako okasio guzietatik: konfesatzea neure kulpak, eta pekatu guziak, eta kunplitzea ematen zatan penitencia: satisfazitzea, eta restituitzea alegin guztiaz inori ezer zor diodan guzia. Zure amorioagatik barkatzen diet neure etsai guztiai; zerren zuk agintzen dezun, argatikan amaten ditut biotz osotik ni agrabiatu nabeen aek guziak. Ofrezitzen derautzut neure bizia, neure anima, neure obrak, eta trabaju guziak zeure Eriotza, eta Pasio santuarekin batera, neure kulpak eta pekatu guzien satisfazioan: nola suplikatzen, eta regutzen dizudan, ala det konfiatzen zure Bondade, eta Miserikordia infinita orregan, barkatuko dirautzazula oraindano egin diutzudan ofensa guztiak, eta emango didazula zeure grazia perseberatzeko beti zure amorioan, eta obediementuan mundu onetan bizirikan nadukazun tenpora guzian, finean amadu zaitzatan eternidade bat guzian. Amen.

KAP. VI.

IRAKASTEN ZAIO

KRISTAUBARI,

**bere Konzientzia nola examinatu bear deban
Mandamentu bakoitzean, Konfesio Jenerala,
edo Partikulara ona egiteko**

I.

**Jaungoikoaren Lege Santuko
leenengo Mandamentuan egin bear deu
memoria, eta kontua atera:**

1. Konsentidu ote deban adbertiturik Fedearen kontrako pensamenturik, edo dudatu ote deban adbertenziarekin Fedeko Misterioren batean: eta zenbat bider.

Fedeko gauzetan difikultadeak ofrezitzea, edo konsideraziora etortea, ez da dudatzea.

2. Doktrina Kristianea jakiterako obligaziora etorri zan tenporan, arkitu ote zan jakin bagarik: eta bere familiari berak, edo besteren medioz irakatsi bage eutzi ote dion.

3. Jaungoikoaren Miserikordiaz desesperatu ote deban inoiz: eta fiatu ote dan Jaungoikoaren Miserikordian, sinisturik salbatuko dala aren medioz, bere partetikan alegina egin bagarik.

4. Esan ote deban blasfemiarikan.

5. Sinistu ote deban, edo eman krediturik amesai, superstizioai, edo egin ote deban, edo prokuratu ote deban hetxizoren bat edo enkantamenturen bat.

6. Eutzi ote deban uso razoezkora etorri zanetikan urterik Akto Fedekoa, Esperantzakoa, eta Karidadekoa egin bagarik.

7. Inkurritu ote deban exkomunioren batean, edo irregularidaderen batean.

8. Egin ote deban Konfesio, edo Komunio sakrilegarik, konfesatu bage pekatoren bat eutzia, edo konzientzia examinatu bage konfesatuaz, edo lotsaz, edo bildurraz; edo bear dan damua bage, edota propositu firmerik bage konfesatuaz: eta urtean zenbat bider arraizkero konfesatu, eta komulgatu ote dan. Konfesoreak eman zigon penitentzia kunplidu zeikealarik, eutzi ote deban kunplidu bagarik.

9. Urtean beingo Konfesioari, eta Pazkoa Resurrekziokoz komulgatzera dadukagun obligazioari eutzi ote digon kunplimentu eman bagarik.

Gazki konfesatu, eta komulgatu danak, ez deu kunplidu Eleiza Santuaren Mandamentu oekin.

10. Inkisizioko Tribunale Santuak debekaturik dadukan libururen batean irakurri ote deban, entzuera izanik debekatua zegoana.

11. Botorik, edo Promesik kunplidu bage eutzi ote deban.

Birtutearen exerzizioaz, edo birtutean exerzitzen dan personaren batez egin ote deban burla, eta menosprezio, edo persegitu.

12. Tenplo santuai galdu ote dien zor zaizten respektorik gauza grabea.

II.

Bigarren Mandamentuan bear deu examinatu bere Konzientzia:

1. Juramenturik egin ote deban gezurraren gañean, naiz zala inor faborezitzeagatik, eta gai-

tzik, edo danuren bat etorri etzekion, edo onda-sunen bat konsegidu segienzat: eta zenbat bider.

Gezurren gañean juramentu egitea, da beti pekatu mortal, naiz dalarikan ere gezurra guziz txikia, eta ezer inportatzen ez debana. Ez dago bat obligaturik esatera zer modutara juramentuak egin zituan, edo izan ziraden *Krutze Santuagatik, Maria Santisimagatik, edo beste Santuagatik, edo Jaungoikoagatik, edo beste onelako moduren batean eginak*. Bañan blasfemiako juramenturik egin baldin bada, bear da delaratu zer modutara egin zan. Ez da juramentu: *Neure konzientzian: Gizon honraduaren fedean, edo legean: Kristauba naizan bezela*, eta beste onelako itzegite moduak esatea. Bañan esango baliz beste modu onetara: *Neure biziagatik: Neure animeagatik, &c.* Izango lizate juramentu.

2. Duda ematen zeban gauzaren baten gañean, egin ote zeban juramenturik ziertotzat ematen zebala dudako gauza ura.

3. Egia dan, edo gezurra dan reparatu bage, edo kuidadurik artu bage, ote deban botoak, eta juramentuak egozteko kostunbrerik.

4. Juramentuarekin batera egotzi ote digon inori amenazarik, gaitz andiren bat egiteko; eta kunplitzeko intenzioarekin, edo intenzio bage egin ote zeban juramentu ori.

Onelako juramentu oek guziak, naiz dirala kunplitzeko intenzioarekin eginak, naiz ez dirala intenzio orrekin eginak, beti dirade pekatu mortal. Eta onelako juramenturik ez da bear kunplidu, naiz kunplitzeko animoarakin egina dala ere; zerren, kunplitzen lebanak, egingo leuke leenaz gañera beste pekatu mortal bat berriro. Gaitz grabea, edo andia da, bofetadaren bat emateko, edo golperen bat emateko, edo onelako agrabiorren batekin proximoa amenazatzea.

5. Ausi ote deban juramenturik materia grabea; au da: egin azkero juramentu gauza gaitz andiren bat bein ere ez egiteko: edo gauza on andiren bat egiteko ausi ote deban onelako juramenturik. *Materia lebean, edo gauza txikian juramentua ausiaz pekatu benial egiten da, eta ez pekatu andiagorik, edo mortalik.*

6. Bere buruaren alabanzan esan ote deban juramentuarekin; egin zebala onelako, edo orrelako pekatu mortala: edo egin ote deban jura-

menturik, pekatu mortalen bat egiteko intenzio-arekin, edo naiz intenzio bage.

Onelako juramenturik ez da bear kunplidu: eta kunplitzen baliz, izango lizate pekatu mortal berria.

7. Jaungoikoari, edo beraren Majestadearen Santuren bati egindako botorik, edo promesik, ote dadukan kunplidu bage, zerren mudatu zeban kunplitzeko intenzioa: edota, kunplitzeko intenzioa bein ere galdu ez arren ere, eutzi ote deban tenpora luzean (kausa, ta motibo justurik ez izanik, edo bere deskuido andiaz, edo nagitasunaz) kunplimenturikan eman bage.

8. Gezurraren gañean egin zeban juramentua izan ote zan proximoaren dañuan.

9. Juramentu falsorik eragin ote digon inori justiziaren aurrean, besteren dañuan, edo dañurikan inori besteri segitzen ez bazitzakan ere: edo berak egin ote deban justiziaren aurrean onelako juramentu gaiztorik.

III.

Irugarren Mandamentuan bear deu examinatu bere konzienzia.

1. Nezesidade andirik bage trabajatu ote deban Jai guardatu bear diraden aenen batean, eta zenbat tenpora jaurdun zeban bearrean.

Eskribitzen jaurdunzea Jai egunean, ez da debekatzen. Eskribabak ezin egin daike Jai egunean. Deretxoz egun orrelakoetan trabajatzeari debekaturik dauden, eta anulaturik edo desegin-dutzat emanik dauden Eskritura aetarikan batere; bañan, aez kanpora, egin ditzake gañeruntzako beste edozein Eskritura Jai egunean, salarioagatik trabajitzen ditularikan ere. Onenbeste aditzen da Pintatzen, edo dibujatzen, Jai egunean enpleatzen dan Pintoreagatikan ere; bada opinio probablean, ez bata, eta ez besteak egiten debe orregatikan ere pekatu mortalik, eta benialikan ere. Nezesidaderik bage hordu batean josten Jai egunean egitea, da solamente pekatu benial; eta nezesidadeagatik egiten baldin bada, ez da pekaturik batere.

2. Eleiza Ama Santuak señalaturik daduzkan Jai, eta Festa egunikan eutzi ote deban Meza Santua entzun bage bere kulpaz; eta zenbat Jaitan.

Jai egunean bere Erritikan beste batera Meza entzun bage irten zebanak, juzgatzen zebala bere iritzi guztian, alkantzatuko zala urrengo Errira Meza entzutera muga onean, eta sineste onekin (dudarik, edo rezelorik bage, bideari ekinik) ez bazeban (uste izan zeban bezela) alkanztatu Mezarik, eta gelditu bazan ere entzun bagarik: etzeban egin pekaturik, baldin arraizke-ro ezin allegatu bazitean beste lekuren batera, Meza Santua entzute hordurako. Bañan, irten baldin bazan enzun zeikean lekutik beste lekuren batera, arkitzen zala dudan, edo rezelotan, allegatuko ote zan, edo ez ote zan Meza entzute hordurako: geroz suertatu bazitzakon ere, hordu onerako leku, edo Erri artara allegatzea, eta Meza entzutea; egin zeban, duda artan irten zanaz beste bage, pekatu mortal andia.

Bidean dihoanak jornada; edo bidean laguna, edo konpañiaren bat nezesitatzan debanak, baldin Meza entzuten bidean geldituaz, badator gal-

zera bere jornada bere dañu konsiderablean, edo besterenean; edo orregatikan galtzeera baldin badator bidean nezesitatzan zeban lagun ura: ez daduka onek Meza bidean entzuterako obligaziorik; eta ala Mezarik entzun bage, bidea prosegituagatikan, ez deu egiten batere pekatu-rik.

3. Egon ote zan itzegiten, edo batera, eta bestera begiratzen zebala Mezaren parte konsiderablean, nola dan Mezaren laugarren partea: eta inori besteri eman ote zigon alako dibertimenturako okasiorik, edo motiborik.

4. Entzun ote zeban Mezarik exkomulgaturik arkitzen zan tenporan; edo komunikazio prezisoaz gañera, itzegitea eskusadu ez ote zeban.

5. Entreditxoko tenporan, edo Ofizio Dibinoak zelebratzea debekaturik dagoan tenporan entzun ote deban Mezarik, Bulda Kruzadakoa, edo eztebalarik, edo beste Pribilejio espezialik, Meza, Entreditxoa dagoan lekuan entzuteko fakultadea ematen dionik.

Bulda artzeko intenzioa ez da bastante esan degunerako.

6. Egin ote deban Konfesio gaitzikan, pekatu-
ren bat ixilik eutzia, edo beste razoez.

7. Pekatu mortaleko estadian arkitzen zala-
rik, rezebitu ote deban Sakramentu Altarekoa,
edo beste Sakramenturen bat, disposizio bear
zana bage.

Ofizio Dibinoa rezatzera obligaturik dauden
aez, eztegu zer tratadu Kartilla onetan, bada
eurak dakie nola bear debean examinatu kon-
zientzia Mandamentu onetan.

8. Eriotzako peligururen batean arkitu zan
tenporan, edo razoe prudentearekin peliguru ori
itxedeten zegoan tenporan, arkitzen zalarik
pekatu mortaleko estadian, konfesatu bage gel-
ditu ote zeban: eta baldin ezin bazeban Konfeso-
rerik batere, prokuratu ez ote zeban, biotz osotik
Akto kontrizioa egitea.

Uso razoezkora allegatzen danetik, asitzen
da obligatzen Mandamentu au: eta urte bete
igaro azkero, konfesatzen ez dan ark (prinzipal-
mente arkitzen dalarik pekatu mortaleko kon-
tzienziarekin) ausitzen deu Mandamentu au.
Komunio Santua rezebitzeko obligazioa asitzen
da, Sakramentu onen exzelentzia, eta anditasu-

na zer dan ezagutzeko obligazioan Penitentea sartzen dan tenpora artatik. Eta baldin urteren batzuetan admititzen ez bada Komunio Santura, zerren arkitzen dan ignorantzian bere kulpaz, au da, zerren dagoan ikasi bage Komunio Santua rezibitzerako jakin bear dan Doktrina: ignorantziako kulpaz orrez gañera, faltatzen ere deu andiro, edo mortalmente, Eleiza Santuaren Mandamentu laugarrenaren kontra.

9. Garizuma Santuko baru egunetan, uso razoezkora etorri azkero, jan ote deban arraultzarik, edo eznerik, edo ezne gauzarik, Bulda Santu Kruzadakoa artu bage.

Bulda artzeko intenzioarekin egotea ez da bastante: bear da artu leenago Bulda Santua. Garizumako barau egunaz kanpora, beste bijilia, eta barau egun, urteak dakazen aetan guzietan, jan ditezke arraultzak, eznea, eta eznearekin egiten dan edozeinereko alimentu, Buldarik artu ez arren.

10. Hostirala egunean, edo Laurenbat egunean (*Iruñeko Obispadu onetan*) aragirikan jan ote deban uso razoezkora etorri azkero, eta ara-

gia jateko kausa justuren bat bage; eta egunean zenbat bider jan ote zeban.

Obispadu onetakoak Kalaorrako Obispaduan jan daike eskrupulo bage Laurenbat egunetan, an permetitzen dan aragia.

11. Berak kausa, eta motibo emanlk, inor jan ote deban aragirik bijilia egunean.

12. Ogei eta bat urte kunplidu zitzaizkon azkero, ausi ote deban barau egunik, edo eutzi deban baraurrik atera bage, orretarako ez zedukala kausa, edo razoe justurik.

Kolazioan zortzi onzatik aurrera jaten debanak, ausitzen deu baraurra.

13. Amarrenak, eta Primiziak osotoro egin bage, edo pagatu bage eutzi ote dituan.

14. Amarrenarentzat, edo Primiziarentzat haziendarik txarrena eskojitu ote zeban: edo ifeni ote zituan ain kobru gaitzean, nola beraren kausaz ez zituan kobratu Eleizeak zor zitzaizkan kalidadean, eta kantidadean. Eta onelako engañiorik egin baldin bazeban, ote dagoan restituzioa Eleizari egin bage.

IV.

Laugarren Mandamentuan bear deu examinatu bere Konzientzia.

1. Bere Gurasoai, Nagusiai, Preladuai, Republikaren gobernoan ediroitzen diraden Buruai, edo persona anzianoai, ekarri ez ote dien zor zaien obediencia, eta respeto gauza justuan, eta grabean.

2. Onelako Personaren bati esan, edo erantzun ote digon sentimentu andiko, edo pesadumbre andiko razoerik: eta zenbat bider.

3. Bere gurasoak sokorridu zizakela padezitzen zebean nezesidade grabean, eutzi ote zien sokorridu bage. Eta lo mismo Gurasoak ekusirikan bere Semea, edo Alaba nezesidade andian, eutzi ote zigon sokorridu al zeikealarik sokorridu bage, Semea, edo Alaba lejitimoa ez zalarikan ere.

4. Bere Semeai, edo bere familiakoren bati, inoiz ere eman ote dion exenplo gaiztorik, edo konseju gaiztorik, pekatu grabea danik.

5. Bere Semeai, eta Alabai konsentidu ote dien desberguenzarik, eta atrebimentu andirik

korrejituz bage, edo merezi zebeanaz konforme kastigurik eman bage: edo eutzitzen ote dien illuntze azkero etxetik irteten euren antojura.

6. Semeari, edo Alabari bere borondatearen kontra artueragin ote dion estaduren bat, ezagutzen zebalarik ere, estatu ura ez zana bere Semearen, edo Alabaren borondatekoa.

Naiz Gurasoak bere Alabaren bat, naiz Gurasoaren obediementukoa ez izan arren, emakumearen bat bere borondatearen kontra sartuerazten debanak Monja (Deretxoak deklaratzeko dituan kaso aez kanpora) pekatu mortal eginaz gañera, gelditzen da exkomulgaturik: eta ainbeste dago ifenirik exkomunio au, fin artarako itzaz, edo obraz konkurritu zebean guzian kontra.

7. Galdu, edo destruidu ote deban jokuan, edo lizito ez dan gauzan bere Semean hazienda, edo bere Emaztearena.

R. Emazteak Senarrari obedezi du ez ote dion gauza grabea, eta justuan: edo esan ote diozkan itz gaiztoak, edo eman pesadunbre andirik razoe bage.

9. Albazea, edo heredero izanik, kunplidu ez ote deban testamentuaren disposizioarekin.

V.

Bostgarren Mandamentuan bear deu examinatu bere Konzientzia.

1. Bere buruari, edo inori ere besteri deseatu ote dion eriotzea; edo beste dañurik, agrabiorik, eta gaitz andirik animan, korputzean, honran, kredituan, faman, edo haziendan.

2. Bere proximoari egin ote dion itzaz, edo obraz agrabio andirik.

3. Bere proximoari itzegin nai bage ote dagoan, edo Kristandadeko kortesiarekin kunplidu naiz bage, ematen debala eskandaloa.

4. Ofendidu azkero bere proximoa obraz, edota bizia kenduaz, edo heriturik eutzi az, modu orreenen batez egin ziozkan dañuak, restituidu bage eutzi zituan, edo satisfazio osoa eman bage heritu zebanari, edo il zeban aren Emastea-ri, edo Semeari, baldin bazituan.

5. Sazerdoteren bati, edo Relijosoren bati ifeni ote dion eskurik, edo deseatu ifentea.

Persona Sagradu oek agrabiatzea, naiz eskuaz, naiz makillaz, edo beste edozeineko armaren batez; edo naiz dala injuriaz, edo desprezioz istua euren aurpegira urtegiaraz: modu onetan, bada, agrabiatzea, da pekatu mortal sakrilejiokoa; eta orrez gañera inkurritzen da exkomunioan.

6. Ediro ote dan, edo arkitu pendentzia, eta erroiduren batean, edo erroidu billa ibili ote dan: eta pekatu mortalean egonik, ediro ote zan erioztzako peliguruan.

7. Prokuratu ote deban andrearen bati bere entrañaetan dadukan aurra bota eragitea, eta bota eragin ote zion: edo bera emakumea izanik, eta baldin basedukan aurra zintan, prokuratu ote zeban abortatzea, edo bere borondatez abortatu ote zeban.

8. Bere proximoaren gaitz andiaz, atsegin izan ote deban: edo proximoaren ondasunaz, disgusto andia, edo naibagetasun, edo pesadunbre andia artu ote zeban.

9. Jan, edo edan ote deban geiegi, ezagutzen zebalarik egingo ziona dañu grabea osasunean,

edo pribatuko zebana bere zentzu onetik, edo kordetik.

10. Egotzi ote deban bidaurik deseo gaitzarekin.

11. Inor desafiatu ote deban edo irten ote dan desafioren batera, edo desafioan padrino izatera, edo bero gustoz desafiorik ekustera, eta peleatu ote zan bere kontrarioarekin.

12. Konsentidu ote dion bere kriaduari, edo besteri desafiora, edo beste erroidu eta pendentzietara irtetea.

13. Esan ditugun okasio aetarako inori presatu dion armarik, eta ote ziraden arma bedatuak. Eta bere etxean gorde ote deban edo iduki arma bedaturik, kausa justurik bage.

14. Inoren kontra iduki ote deban odio andirik, eta zenbat tenporan.

15. Sokurritu al zeikeala, eutzi ote zeban sokorritu bage nezesidade extreman, edo andian edirotzean zan pobrerik.

16. Inor akonsejatu ote deban, pekatu egite-ra, edo pekatu egiten irakatsi dion inori, edo berak exekutadu ote deban pekatu mortalen bat inoren aurrean.

VI. — IX.

Seigarren, eta

Bederatzigarren Mandamentuan

bear deu examinatu bere Konzientzia:

1. Konsentidu ote deban emakumeakin pekatu egiteko pensamentuan, edo deleitadu ote dan alako pensamentu aetan, edo beste edozeinereko akto torpe aenen batean, eta zenbat bider.

Kastidadearen kontra pensamentuak adbertimentuarekin konsentitzen dituen persona asko ediro litezke euren kulpaz ignorantzia andi batean, eta guztiz engañaturik: batzuek ez debe sinistzen, egiten danik pekatu mortalik pensamentu gaiztoa bere gogoan konsentituaz, baldin pensamentutik edo deseotik pasatu ez bazan obraz egitera pekatu: beste batzuek pensamentu gaitz artan gustoz, edo atsegin artzen debeatla egoteari ez deritzoe dala pekatu mortal, baldin iduki ez bazeben obraz pekatu egiteko deseorik; bañan gelditzen dirade gaizki engañatuak: zerren, nola dan pekatu mortal Kastidadearen kontrako obraren bat egitea, ala da pekatu

mortal obra gaitz ura deseatzeara, naiz deseara kausaren bategatik kunplitzen ez bada ere obraz. Eta nola dan pekatu mortal deseara bertan konsentitzea, obrara pasatzen ez dalarik ere; ala, ainbeste da pekatu mortal Kastidadearen kontrako pensamentua (adbertitzen dan instantetik) bere gogoan konsentitu nai izatea, edo bere gogoan permititzea, eta leku ematea; edo pensamentu artan bere borondatez, gustoa, edo deleitea arzeen nai egotea, deseatzeara eztalarik ere obraz pekaturik egitea. Mandamentu onen kontra egiten da, bada, pekatu mortal, esan degun modu oez guzior; eta oez gañera egiten da pekatu mortal, Kastidadearen kontrako itz torpeak esanaz, eta kanta deshonestoak ikasiaz, edo kantatuaz, edo aek gustoz adituaz.

Edo zein Mandamenturen kontra egin leike pekatu pensamentuz, itzaz, eta obraz; argatikan, bada, Konzientzia examinatu bear da Mandamentu bakoitzean zer moduz pekatu egin dan, au da: edo egin dan pensamentuz, edo itzaz, edo obraz.

Kastidadearen kontra edozeinereko moduz egin dituan pekatu aetan adbertidu beza zer zir-

kunstanziako, eta estaduko personakin deleitea izan zeban, edo deseo edo obra: ote ziraden boto kastidadekoa egin zeban personak; edo ziraden bere aideak, eta zenbatgarren graduak, edo belaunera iristen zan aidetasuna; edo ote ziraden ezkonduak, edo donzellak, eta ote zedukan animoa resolbiturik forzatzeko, edo engañatzeko; eta berak ote dadukan boto kastidadeko-rik eginik, edo juramenturik, pekatu moeta oenik bein ere ez egiteko.

2. Pretenditu ote deban Emakumerik berak mandatu eginik pekatu eragiteko; edo besteren batekin bere deseo gaiztoa aditzera emanik; edo kartaren bat eskribituaz, edo regaloren bat eginaz, edo galanteatuaz, &c. Eta inori lagundu zaion bera onelako lantze, edo okasioetan; edo pekatu egitera zijeazen horduan: edo alkabuetetzat serbitu deban.

3. Deshonestidadeko itzikan esan ote deban, deleitatzen dalarik itz torpe aetan; eta itz moeta aekin inori artu eragin ote dion deleite, edo gusto aenik. *Ainbeste aditzen da kanta deshonestoak esanaz, eta dantza torpeak eginaz.* Eskribitu ote deban bersorik, edo paperik afizio

torpea aditzera ematen debanik, edo irakastera ematen debanik: eta irakurri ote deban onelako moetakoa libururik, eta paperik.

4. Bere pekatuaz alabatu ote dan inoren aurrean: eta eman ote dion inori okasiorik edo motiborik modu artara alabatu dirin. Fingitu ote deban egin debala pekatu emakumeren batekin; edo damu izan ote deban emakume arekin pekatu ez eginaz.

5. Akto torpeaz kanpora, eta aren okasioaz kanpora, izan ote deban aspekto torperik, musurik, laztanik, edo tokamenturik personaren batekin, eta zer estadukoarekin.

6. Bere borondatez loitu ote dan, edo prokuratu ote deban bere burua loitzea: ote zedukan horduan personaren bat memorian, edo bere pensamentuan: edo emakumeaz en komun oroitzan ote zan, au da, estadurik distingidu bage.

7. Pekatu egiterako okasioan bizi ote dan, peligrua bere hetxean dadukalarik; edo bere hetxetik kanpora arkitu arren peligruru ori, ote dadukan libertadea nai deban guztian hetxe artan sartzeekoa.

8. Ezkontzarako itzak alkarri emanik daudenak, eta ezkondu nai debean oek iru jaitan euren Rektoreak, edo Bikarioak publikaturik daduzkalarik ere, ibili ote diraden alkarrekin llaneza sobratuan, lejitimamente ezkondu baño leenago, eta orrez gañera eman ote debean eskandalorik; edo arkitzen ote diraden ezkontzeko pretexto orrekin eskandaloa kendu bage.

9. Gizonak egin ote zeban dilijentziaren bat aurdun gertatu eitzekion emakumea; eta aurdun gelditu baldin bazan, restituidu ote ziozkan andik segitu ziraden dañuak emakumearen Senarrari, edo Seme lejitimoai (oek zituan kasoan, edo ezkonduarik emakume ura arkitzen zan kasoan).

10. Ezkontzarako itza eman azkero emakumeari, eutzi obe deban engañaturik, itzari faltatuaz.

11. Ezkontzarako itzikan eman bagarik, donzellaren bat korputzaz ezagutu azkero, eutzi ote deban bere obligazioari kunplimenturik eman bage, au da, doterik eman bage, edo arekin ezkondu bage; zerren obligatua gelditzen da

kaso onetan gizona, dotatzera, edo emakume arekin ezkontzera.

12. Bere kriatureaz kuidatu bage eutzi ote deban, berea ez baleu bezela; edo berea debana rekonozitu nai bage.

13. Ezkonduak bata besteari eutzi ote digoen Matrimonioko zorra pagatu bage kausa justuren bat ez izanik eskusatu zeikeanik obligazio artatik.

14. Kastidadearen kontrako pekaturik obraz egin ote deban leku Sagraduren batean.

Penitenteak deklaratu beza esan ditugun pekatu moeta bakoitzean zer kostunbre izan deban: eta ainbeste deklaratu bear deu beste edozeinereko pekatu moetan, baldin izan badeu pekatu egiteko kostunbrerik. Seigarrengo Mandamentu onen kontra miseria humanaz egin litezkean beste pekatu moeta itsusi, eta arrigarri aenik, ez degu examina onetan aitatzen, Kristaubaren modestia ofenditutzat eman eztidin. Badarikan ere adbertitzen zaio Kristabari, ezen ez dala Seigarrengo Mandamentuko pekaturik (naiz itxusiena, eta mortalena baliz ere) herejiako pekatuadanik; eta ala, absolbitu dezakeala edo-

zeinereko Konfesore aprobaduk bere Obispa-
duan, baldin badaduka penitenteak Bulda Santu
Kruzadukoa arturik.

15. Akusatu bide penitentea zer eskandalo
eman deban Mandamentu onetan, eta zenbat
tenporan.

VII. — X.

Zazpigarren, eta Amargarren Mandamentuan bear deu examinatu bere Konzientzia.

1. Deseatu ote deban inoren ondasunik
medio gaiztoen bidetik, edo fin gaistoetarako.

Medioak onak, eta lizitoak diranean, aez,
baliatzen dalarik deseatzeta fin onerako, eta jus-
turako, ez da pekatu.

2. Napurretarik egin ote deban: zenbat eba-
tsi, edo hoostu deban, eta zenbat alditan; edo
hoostu ote zeban beingoan kantidadeguztia,
edo asko biderretan, eta zenbat bider; eta oka-
sio bakoitzean kantidadeguztia, edo guziz labu-
rra hoostu arren, zer intenziorekin hoostu oi ote

zeban; au da, materia grabea hoostutzero allegatzeko intenzioarekin egin oi ote zeban napurreta txiki bakoitza.

3. Leku Sagraduren batetik hoostu ote deban gauza Sagradurik; edo gauza Sagraduren bat leku Sagraduaz kanpotik, edo leku Sagraduan arkitzen eztzalarikan ere: edota leku Sagraduaren gauzarik, gauza bera Sagradua ez ikanikan ere, hoostu ote zeban leku Sagradutik, edo Eleizaren batetik.

4. Inori lagundu ote digon napurretea egiten; edo eragin ote digon inori napurretarik ala aginduaz, nola konseju emanaz, edo beste moduren batez.

5. Inori ere bere haziendan egin ote digon dañu grabarik, edo andirik.

6. Konfesoreak agindu zigon restituziorik eutzi ote deban (egin al zeikealarik) egin bagarik.

7. Jokuan egin ote deban tranpiarik Jokuaren legeak permititzen ez debanik: eta zenbat bider.

8. Engañiorik eta tranpiarik egin ote deban, edo injustizia grabarik saldu erosian, edo bere

tratu konteatuetan, edo bere ofizioan; eta restituziorik egin bage eutzi ote deben.

9. Erosi ote deban garirik, edo beste laborerik, prezio andiagoan gero salduzko.

10. Fiatura saldu dituan gauza aetan (zorraz seguraturik, gelditzen zitzakolarik ere) fiatuan emateagatik beragatik, eraman ote debean, eskuko diru promptoan balio zeban baño prezio geiago: eta geiago eraman zeban interesa, edo kantidade ura, restituidu bage eutzi ote deban.

11. Prestatu ote deban gauzarik, edo kantidaderik pagatzen zaion tenporan, zerbait geiago eman dakion obligazioarekin; orretarako eduki bage titulurik, Konfesore prudenteak justutzat ezagutzen debanik.

12. Bere kriaduai, eta langinai zor zitzaten soldata, edo jornala (pagatu zeikealearik) eutzi ote zien tenpora luzean pagatu bage, deskuido eta omisio argatikan segitzen zitzatealarik dañu grabea.

13. Zorrak pagatu al ditzakealarik, eutzi ote dituan pagatu bage, bere nagitasunaz, edo maliziaz pagua luzatzen debela; eta ortikan segitu ote zaion bere akreedoreai dañu andirik.

14. Bere Gurasoai hoostu ote dien kantidade-rik, haziendearen proporziotik aurrerago pasatzen danik. Eta seniderik baldin badeu, dago obligaturik aei restituitzera parte ura zeñean agrabiatu zituan.

15. Besteren familiako Semeai irabazi ote dien jokuan, aek euren Gurasoen haziendaz konforme galdu zezaketen baño kantidade geiago; zerren bear deu restituidu.

16. Morroiak, Neskameak, eta beste edozeinereko personak, ajustadu ziraden azkero soldatan, eta salarioan euren Nagusiakin, edo tratua dakardean aekin; gelditu ote ziraden aen interesaren batekin rekonpensaz, edo euren trabajua-
ren, eta serbizioaren alderako, juizio eginaz, ezen ajustadu ziranetikan ere geiago merezi debeala aen haziendatik.

17. Gurasoak euren Semeai, Nagusiak euren kriaduai, eta Juezak euren republikan aukitzen diraden aei, debekatu ez ote dizaten hoostutzea; edo konsentitu, eta disimulatu ote dizaten napurretarik egitea.

18. Ebetsi ote deban, edo hoostu frutarik, azarik, edo berdurarik, egaztirik, eta beste one-

lako gauzarik, materia grabera allegatzen danik; zerren jateko gauzak izan arren ere oek, ainbeste pekatu egiten da hoostutzeaz, eta gelditzen da restituitzerako obligazioa.

19. Berak sortu ote deban, ado segitu setaz, edo tema gaiztoz auzirik, justua eztanik; eta andik segitu ziraden dañuak eutzi ote dituan restituidu bage.

20. Juezak, Ministroak, edo beste edozeinereko Ofiziale diranak, eraman ote deban bear deban salarioa baño geiago.

21. Inor akonsejatu ote deban Relijioso ez izateko, edo debekatu digon inori Relijioso izatea. Restituzioko kaso guzietan, bear deu Kristaubak adbertidu, ezen agrabio prinzipala satisfazitzerako obligazioaz gañera, dadukala dañuak ere satisfazitzeko obligazioa. Eta jakin beza geiago, ezen besteren gauza, interesa, edo hazienda gaizki eramanean dadukanak, edo galdueragin dionak, ez dadukala beste mediorik extremo oen bion artean, baizikan: edo restituzioa egin al dagikealarik, bear deu zor deban guzia restituidu; edo restituitzen ez badeu, bear deu remediorik bage kondenatu; aizkenik egingo balitu ere

Santu guziak egin zituzten penitentzia guztiak baño andiagoak, ez ledukake orregatikan ere remediorikan batere. Egia au irakastan debe Teologo guztiak, eta au berau ediroko deu Kristabak, segitzen diraden berso oetan.

*Penitentzia, Pekataria!
Ez da inor ere salbatzen,
Zorrak (pagatu al ditezkeala)
Ez badirade pagatzen.*

VIII.

Zortzigarren Mandamentuan bear deu exaninatu bere Konzientzia.

1. Eraki ote digon inori falso testimoniorik materia grabea, edo gauza andian, eta zenbat bider.

2. Esan ote deban Justiziaren aurrean, edo Justiziaz kanpora, gezurrik inoren perjuizio, eta agrabio andian.

3. Bere proximoaren gaitz andiren bat, duda ematen zana aditurik, kontadu ote zigon, edo esan inori gauza ziertoa izan baliz bezela.

4. Bere proximoaren kontra murmuratu ote deban, edo egin ausentzia gaiztorik materia grabean, gauza publikoa ez izanik: edota askok zia-kiana, edo publikoa zalarikan ere, esan ote zeban atsegin zebalarik, kontatzen zeban gaitz andi araz.

5. Egia atortzea, edo deskubritzea inportadu zebanean, eutzi ote zeban atortu bage, naiz zalarikan ere falta, eta gaitz andia, eta egia ura ez atorzuaz segitu ote zan dañu andirik, kentzeera, edo eskusatzera obligatua zegoalarik.

6. Eskribitu ote deban, eda publikatu bersorik, edo beste paperik inoren kontra, eutzitzen debala modu orretan bere proximoa desluziturik; eta onela egin ote deban Relijosoren baten kontra, edo Apeiz Jaunan kontra.

7. Restituidu bear zebalarik bear zan bidetik, edo Konfesoreak esan zigon bezela, proximoari zor zigon fama, edo honra, eutzi ote deban restituidu bage.

8. Deskubritu ote deban gauza graberik sekretoak danik, ondasun publikorakotz konbenietzalarik, edo inportatzen ez zebanik.

9. Besteren kartarik ireki ote deban, an sekreto andiren bat datorrelako ustean; zerren razoe, edo titulu justurik izan bage, irekitzen baldin badeu inoren kartarik, egingo deuen pekatu mortal.

Familia Gurasoak, eta Preladuak debe titulu justua, euren obedimentuko enzat datozen kartaak irekitzeko, eta irakurteko.

10. Egin ote deban inoren kontra juizio temerario, edo gaiztorik; au da fundamentu andirik bage egin ote deban juiziorik gauza grabean, bere proximoaren kontra.

Examina onez kanpora, esan beza penitenteak, eta examinatu bear dituen bere estadiak, eta ofizioak konforme dituen obligazio partikularak guztiak. Eta obligazio oen gañean dudarik ofrezitzen zaionean, itaundu begio Konfessoreari, edo beste gizon dokto, eta Jaungoikoaren bildurra debanari.

Aizkenean emen adbertitzen da, persona ignoranteak euren ignorantziatik ateratzearren,

ezen ez dala lomesmo edo ainbeste juizio temerarioa, nola sospetxa temerarioa. Dirade, bada, bata besteagandik diferente. Juizio temerarioa da, fundamenturik batere bage, edo fundamentu labur eta bastantea bage batek beregan artzea siniste osoa bere proximoaren kontra gauzaren batean. Onelako juizio temerario, edo gaiztorik egiten danean materia lebean, edo anitz inportatzen ez daben gauzaren baten gañean, egiten da pekatu benial solamente: bañan juizio temerarioa, edo gaizto ori egiten baldin bada materia grabean, edo anitz inportatzen deban gauzaren baten gañean, egiten da pekatu mortal.

Sospetxa temerarioa da gauza diferentea juizioagandik; zerren sospetxa temerarioa, edo gaiztoa ez da besterik, baizikan fundamenturik batere bage, edo fundamentu laburrian ere batere bage, beregan bat dudan, eta rezelotan gelditzea (siniste osorik artu bage) bere proximoaren kontra gauzaren batean. Emendik eza gutzen da, bada, juizio temerarioagandik sospetxa temerarioagana dijoan diferenzia andia, eta da au: Juizio temerarioa egiten debanak bere

proximoaren kontra, artzen deu, eta gelditzen da beregan siniste firmearekin, edo siniste osoan, eta dudarik batere bage, proximoak egin debala delitua, edo maldadea; bañan sospetxa temerariotik aurrera pasatu ez dan ark, ez daduka, eta ez da gelditzen siniste osoarekin eta firmearekin, baizikan dudarekin eta rezeloarekin, proximoak egin ote deban, edo ez ote deban delitu, edo maldade aenik. Onelako sospetxa temerario oek, bada, egiten diranak proximoaren kontra materia lebean, edo gutxi inportatzen deban gauzan, dirade pekatu benialak guziak: baldin egiten badirade sospetxa temerarioak, edo fundamenturik batere bagekoak, materia grabean edo inportantzia andiko gauzaren batean; esaten debe Teologoen artean bazuek, ezen pekatu mortalak diradela sospetxa gaizto aek guziak; eta beste batzuek defenditzen debe, ezen sospetxa temerarioak ez diradela pekatu mortalak, baizen benialak solamente: eta baldin sospetxa egiteko, arkitzen baliz fundamenturen bat, dan txikiena lizalarikan ere, sospetxa ori ez da izango temerarioa, eta ez pekatu ere. Badarikan ere, gauzarik onena materia onetan, eta seguroena

da, sospetxa gaiztorik inoren kontra ez egitea, partikularmente fundamentu bastanterik ez danean.

Adbortitzen da geiago, ezen juizio temerarioa proximoaren kontra materia grabea egin arren, edo sospetxa temerarioen bat egin arren, edo proximoaren kontra gauza grabea murmura-tuagatikan ere, ez zaiola proximoari eskatu bear orregatik barkaziorik. Ignorante askok uste debe, pekatu egiten dala barkazioa ez eskatuaz, bañan daude guziz engañatuak; zerren baldin nere proximoak ez badiakit niri zer juizio, zer sospetxa, edo zer murmurazio, edo ausentzia gaizto egin dodan beraren kontra, zoratasun andia izango lizate neuronek berari esatea, eta barkazioa eskatuaz manifestatzea; bada orren-besteiz eman neikeo kausa, edo motiboa, artu dagian bertatik neuronen kontra odio, edo gaitzerizteren bat, zeña (ezagutzen degun bezela) da pekatu.

Bear da, bada jakin noiz arkitzen dan barkazioa eskatzerako obligazioa, eta noiz ez. Barkazioa eskatu bear da solo honra restituitzeko, bañan ez fama restituitzeko; eta nola sospetxa

temerarioak, juizio temerarioak, eta murmurazio gaiztoak ez debean eritzen inor bere honran, baizen solamente faman: orregatikan, bada, bear ezta barkaziorikan eskatu sospetxa, eta juizio temerarioak egin arren, eta naiz murmurazio gaiztoak egin diralarikan ere. Au obeto adituko da orain egingo degun explikazio onekin: Fama ez da besterik, baizikan opinio on bat, zeñean dadukagun geren proximoa; eta honra ez da besterik, baizikan proximoari exteriorean, edo kanpotik erakusten, edo egiten diogun benerezioa, eta reberentzia bere presentzian: eta nola sospetxa gaiztoak, juizio temerarioak, eta murmurazioak, (zeña beti egiten da ausentzian) eritzen debean solamente opinio on ura, zeñean iduki bear degun geren proximoa, eta ez proximoari bere presentzian erakutsi bear diegun benerezioa, eta reberentzia; emendik gatoz eza gutzera, ezen sospetxa temerarioak, juizio temerarioak, eta murmurazioak eritzen debeala solamente proximoa bere faman, eta ausentzian, bañan ez bere honran, edo presentzian: Orregatik, bada, proximoari bere fama restituitzeko, ez da bear eskatu barkaziorik. Honra restituitzeko,

da solamente barkazioaren eskatzea; bañan ez da zer eskatu, fama restituidu bear danean.

Murmurazioz poximoa eritu debanak bere faman grabemente, edo anitz, eta ez dakianak nola itzuliko digon; komunikatu beza Konfesore doktoarekin, eta onek irakatsiko digo zer moduz fama ondo restituiduko deban, barkaziorik eskatu bage.

KONFESIO JENERALA

Ni pekataria konfesatzen naitzako Jaungoiko guziz poderosoari, Santa MARIA beti Birjinari, San Migel Aingeruari, San Juan Baptistari, San Pedro, eta San Pablo Apostoluai, eta Santu guziai; zerren pekatu egin dedan guziz andiro pentsamentuaz, itzaz, eta obraz: neure kulpaz, neure kulpaz, guziz neure culpa andiaz. Argatikan regutzen diot Santa MARIA beti Birjinari, San Migel Aingeruari, San Juan Baptistari, San Pedro, eta San Pablo Apostoluai, Santu guziai, eta zeuri Aita Espirituala, regutu dagizula nigatik geure Jauna Jaungoikoa.

Amen.